

AURRETIK HITZ BI

Euskalerriko leen-gizona, 1934gn urtean argitarazi nuen liburutxo baten izena da. Beste liburu eta idazki batzuk ere ba ditut eginak: gehienak ordea erdaraz.

Beti ikerketan ibilia, ene idazkaiak aurkimenen berri soilak dira. Horregatik —eta euskaraz direlarik, birritan— ez dute argitaldarien bihotza aski berotzen: ez omen dira irabazpide.

Uste honek ba duela egiaren egitea esango nuke. Berriki hartua dut gure euskal idazle argi baten gutuna. Oso hasarre bera: nik, beste askok bezala, lehen gizakiari buruz ez omen dut ezer euskaraz argitaratu eta, ene erruz batez ere, ez omen dakizki berak —ez bestek— ikaskuntza horretan erabili ohi ditugun mintzo bereziei dagozkien euskal hitzak. Ene ihardespena: "Inork irakurtzearren, zuk irakurri behar ze-

nuen nik gai horretaz aspaldi argitarazi nuen liburuxka; ez duzu ordea denik ere jakin. Beldur naiz honekin ematen ote daukuzun euskal liburuak irakurtzeko daukagun joeraren neurria”.

Aipatu dugun argitaldarien maratilar beste aldera eragiteko, irakurleak ugaritzea da bidezko. Guztien alfabetatzea, alegia, eta heziera mailan, euskal gizabidean batez ere, indartzea eta goratzea.

Zorionez, ba ditugu Euskal Herrian benetako langileak, burua ergelkerian edo eta herbestetik heldu diren inguma artean xoratu gabe, ikasbidean taiuz bezain gogorki dabiltzanak. Hor da gure itxadopena.

Euskal Herriko lehen gizakiak eta berauen hezierak ikasi nahiaz ere, azterlari asko dabiltza lanean. Egitamu ederra: lehen bizibideak, antze-tresnak, er-tilanak, jainkozko irudi eta bitxiak, milaka urtez urrundurik ditugun lagunen gogoetak eta jokuak susmatzea eta jakitea: euskal ethniaren sustraiak, alegia.

Aspaldiko sustrai eta kimuak, geroztik albizitzen, hazten eta hostotzen jarraiki dutenak, noski. Haue-tan da euskal hezieraren ardatza. Hemen hesoinduak eta mamituak ez diren “kultura” eta herria ez dira ez euskal kultura ez Euskal Herria.

Joxemiel Barandiaran.

AITZIN SOLASA

Aita Joxemiel Barandiaranen obra baten aipamena egitea guztiz alferrekoa bada ere, beraren izena eta izana berez aski ozen eta argiro mintzo baitira, uste ukan dugu komeni zatekeela irakurleari hain maisu haundi horren obra honetaz zenbait hitz egitea.

Lehengo eta behin, gauza jakina da obra hau aspaldi aspaldidanik "laster agertzeko" bezala aipatua zela Hastapenak sailean, eta orain arte ez dela argitarara emana. Aita Barandiarani, egia da, lan hau aspaldian egiteko erregutu genion, eta berak —euskal gauzetarako beti prest eta—, ahalik eta lasterren eginen zukeela esan zeukun. Baina zorigaitzez gauzak ez dira beti hain erraz gertatzen.

Ez da inongo sekretu bat aita Joxemiel gazteak —kasu honetan bere larogei eta bi urteek bat ere kalterik egin ez baitiote oraino— obi ez bezalako

bizitze lanpetua daramala: udan eta udazkenean baitzulo-harpeetako azterketak, neguan eta udaberrian Iruineko Unibertsitateko ethnologi ikastaroak, urte osoan hitzaldiak hor eta hemen egin ditzan egiten dizkioten eten gabeko eskariak eta munduko ethnologi eta arkheologi aldizkarietarako egiten dituen artikuluak guti balira bezala, oraino astia harrapatzen obi du bere etxera bisita bat egitera joaten gatzaizkionoi, begikotasunik handienaz, errexitu eta nahi beste azalpen emateko.

Agian, baten batek pentsa lezake dituen urteekin ez dagokeela honez gero arin ibiltzeko, baina, bai zera!, gazte askok hura bezain sendo eta zalu egotea nahiko lukete, izan ere ez baita erraz mendiz aita Barandiaranen ondotik ibiltzea!

Dena dela, hain lanpeturik dagoelarik, ezin zuen lana nahi zuen bezain agudo bukatu, eta horregatik edizio hau zenbait hilabetetan atzeratu izan da.

Beste eragozpen bat irudietan dagoke. Askorentzat sinesteko gaitz eta zail gerta badadi ere, liburuon agertzen diren irudi guztiok bere eskutik eginak ditu, eta gehienak argitaraldi honetarako bereziki moldatuak. Pultsu ona eta esku arteza, bai horixe, eta artista muina ere bai, nork duda!?, baina denbora ere behar da horrenbeste irudi bikain eta zehatz egiteko.

Hauk dituzu, bada, irakurle, gure atzerakuntza bonen arrazoiak; dakusazunez, aita Barandiaranen lan izugarriagatik zeharo justifikatuak bestalde.

Aita Joxemiel Barandiaranek, Ataun bere jaioterriko euskara jatorraz gainera, bere baitzulo azterkuntzetan Euskal Herri guztitik ibiliz, Bizkaikoa, Lapurdikoa, Nafarroakoa eta Zuberoakoa ongi ezagutzen ditu eta beraz ez dateke harrigarri textuan alderdi ezberdinetako hitzak aurkitzea. Bestalde, zenbait tresna eta lanabes berezi izentatzeko, hitz berririk gabe, Ataungo edo zenbait herri ttikitako hitz guti ezagunak erabiltzen ditu, berak nahi duen zentzuan biziki egoki eta erabilgarriak.

Dena dela, irakurle askorentzat —agian gebientsuentzat—, zeharo ezezagunak gerta daitezkeelako eta horietariko pilo bat Azkueren hiztegian ere ez datozelako, uste ukan dugu ongi dagokeela liburuaren azken aldean horik hiztegitxo batetan jartzea, irakurleak argitasun bila nora joan ukan dezan. Ikusiko datekeenez, hitz ezagun batzuk esangura berezi batez erabiliak dira liburu honetan, alegia, semantikazko hedadura edo urridura batez, hala nola heziera “kultura” eta soina “gorputz”, zenbait herritxotan gertatzen denaren eredura. Honelako kasuetan hitz komun hauk ere jarriak ditugu zor diren argitasunak lagun dituztela.

Ethnologiazko eta Arkheologiazko hiztegi berezian (metalengoaia delako horretan) aita Joxemielek zenbait hitz erabiltzen ditu beste inork erabiltzen ez dituenak; on litzateke honetaz jakintza sail honetan ardura duten guztiek, euskara tekniko baten bila, halakoak kontuan har balitzate, honetara zientzi lexikoa arinago lortuko genuke eta.

Eta besterik ez. Guztiok aita Joxemielen eskutiko lan bati zor zaion begikotasunaz eta maitasunaz hartuko dugulakoan eta euskal lan hau beragandik hartzen dugun azkena, ez eta azken aurrekoa ere, izanen ez delako uste sendoan:

Xabier Kintanak

SARRERA

Gure Herri hau ezagutzea egoki zaiku euskaldunoi; beharrezkoa ere bai. Beronen altzoan haziak, beronen mamiaz elikatuak, geure izatez eta hezieraz beronekin gaude lotuak.

Euskal Herria ezagutzeko, ordea, beronen lehen erroak eta geroztiko ibilaldiak ikasi beharra dugu. Gaurkoa lehengoetan baitago oinharritua, hauen irakaspenez eta indarrez dugu guganaino iritxia.

Euskal Herria, etxe, senide edo herri talde baten tankeran, ageri zaiku. Talde horretan, ikusten denez, gizaki berezi batzuk sortzen dira edo eta beste lurraldeetan baino ugariago azaltzen dira —aurpegiz, buruz eta odolez, batez ere, nabari direnak— arteko senak sorteraziak: talde hori beraz azkazi bat dugu.

Azkazia ez ezik, ethnia ere bai. Ba ditu Euskal Herriak bere lur eta eskualdeak; bere bizikerrak —abeltzaintza, arrantza, nekazaritza, olagintza, e.a.—; bere elkargoak —etxe, hauzo, herri—; bere

ohikunde eta legeak; bere hizkuntza eta esaerak; gizabidean bere heziera darabilan eraen eta egitamua.

Heziera honek, ordea, ba ditu bere aurrezteak, lehen haroetan —bakoitza bere mailan— sortuak. Hauen muinetan ikusten ditugu gaurkoaren erroak.

Ikas ditzagun beraz geure Herriaren bizikera eta ibilaldiak, lehen urratsei begira, nahiz eta mengel eta ilunarranak izan ikusbira hori argitzen dabilzkigun zuziak.

Ikaslan haundia dugu hau. Hona hemen beronen oinharri eta iturburuak: Euskal Herriko lehen bizitzak, azterrendegiak eta etxegintzak, alegia.

Itsasaldean nahiz lurbarru, mendi eta ibarretan, ba ditugu non nahi lehen gizakien bizileku, lehorpe eta hilarrien oroi eta ezagugarriak. Zuberoako Etxeberitik hasi eta, Isturitzen, Aizpitarten, Aralarren, Urbanen, Txarratun, Anboton, Toloñon eta Santimamiñen zehar, ba dira hor lehenagokoen sutondo, aterpe eta elizaño ugari; bai eta trikuharriak eta harrespil edo mairubaratzeak ere chunka.

Toki horietan azterketak egiten ibiliak dira ikas-tzale batzuk, bai eta aztarna asko aurkitu eta Euskal Herriko museuetan bildu ere. Isturitzekoak, ordea, urrunago dira: St. Germain-en-Lay izeneko herrian.

Aztarna horien berri liburu edo idazki askotan ikas genitzake.

Ez da aski ordea horrelako iturrietan ura edatea eta lehen hezieraren edo jakiundearen gaiak biltzea: giza hezurak bildu eta elkarrenganatzea ez baita gizakia piztea.

Baina gure lehen gizonen aztarnek ba dituzte ikusgune garbiak ere. Aldi bakoitzeko berriak ikus-bira batetan ditugularik, elkar argitzen eta beren arteko hutsuneak maiz dauzkigute osatzen.

Halaz ere, hain urrun daduzkagun lehen hezierak ezin genitzake xeheki neurtu, ez eta ere, gaurko gogaiera eta hitzen bidez, nolanahi agertu. Ihardunaldi askoren eta sakonen beharra dugu lehen gizartean sartu eta murgil egiteko eta bizikera zaharren itxurak nabaritzeko.

Tokien eta giroen ezaguerek lanbide horretan zerbait laguntzen daukute. Herria non bizi, hango ikusbiran eta lurretan bere jokabidea kutsatzen du, eta moldatzen.

Pirinio mendiek duten apalune haundian dago Euskal Herria. Ez toki laua, ez berdina, menditsua baizik; gizakientzat eta ihizientzat mendi saldo horrek duen irangangurik zabalena ordea, eta lurralde batetik besterantz irteera aski irekiak dituena.

Oraingo gain eta ordekak, sakan eta goiti beheti asko gure lurralde honek sortzez —urgaindu zenetik— hala ditu; gehienak ordea, geroztik hildaskatuak.

Lurralde asko hargorrizkoak; gehiago ordea arrauka harrizkoak, leize eta lurruspe ugarirekin: Arlas, Lexe, Ite, Apanize, Aralar, Handia, Entzia, Toloño, Haizkorri, Ernio, Izarraitz, Anduz, Igozmendi, Anboto, Eskubara, Itxina, etab.

Iturriadar asko eta hibaiak sarri Pirinio gailurre-

tik alde bietarantz: itsasaldeko sakanetara batzuk, hegoaldeko ibarretara haundienak.

Itsasoa iparraldetik; 200 kilometroz luze den itsasbazterra, hondartza lauekin bere altzoetan eta hogei porturekin bere adarretan.

Giro biguina gaurko egunean. Itsas haizeak iparraldetik; lur barrukoak hegoaldeetik: han hezeak, hemen idorragoak; belar eta zuhaitzen hazkiro egokia, ordea, gehienetan.

Euskal Herria oso egokia agertzen zaiku belarjale diren ihizientzat, batez ere alde menditsuetan, dituen larre eta aterpeei esker. Ihiziak, aldiz, nahiz itsasokoak nahiz lehorrekoak, gizakientzat on dira: hazkurri eta laguntzaile. Bai eta basoak ere etxegai eta errekinetarako; lurra, haziak eta landareak bizi ahal eta hazteko; lurpea, hargogor eta meatzak gorde dituelako; hibaiak, gain behera doan uraren indarra eskaintzen dutelako; itsasoa, arrainak dituelako eta ibilbide zabal eta mundu guztira hedatua dugulako, eta abar.

Giroa ordea ez da beti berdina izan eta gizakiari ez dizkio lanbide berak eskaini. Lurraldeak berak aldaketa haundiak ukan ditu. Gure lurbira honen azkenaldian edo Laugarren Haro nagusian, lau izozte haundi, beren zerrepeltarte luzeekin iraganak dira: *Guntz*, *Mindel*. *Riss* eta *Würm* direlakoak alegia (laurok Alpeetako uren izenekoak).

Giro aldaketen arauera ibili dira larrekienak, zuhaitzenak, ihizienak eta gizakienak ere. Garai horietan bilduak edo pilatuak dira gure mendien

oinetan eta hibai hegaletan ageri diren harritegi eta hondartza haundienak eta leizeetako betegarri gehienak: orduko euri jasen eta elur urtzen bidez sortu ziren hibaiek orraztutako lurren hondakinak alegia. Era horretan ordekek sakontzen baitzihoazen, urak zekartzan harkaskar, hondar eta lurak gero eta beheragoko mailetan pilatu zituen. Horregatik Laugarren Haro nagusiko hondartza eta harritegiak, zenbat eta zaharrago hainbat goragoko tokietan ageri. Denak, ordea, garai haietako hibaiei ezagugarri eta lekuko dira. Erraz ikusten ditugu Arga, Aragon, Ebro, Zadorra, Hibaizabal, Uhertzi, Aturri eta Errubi (Nive) hibaiei ezker eskuin, mailaz maila bilduak. Harpe eta leizeetan ere berdin.

Hondakin horiekin batean lehen gizonen aztarnak agertu ditugu toki askotan, batez ere harpeetako betegarriei lotuak.

Halako lekuetan bizi baitziren aldi hartako giza-kiak, hango zoru lurretan utzi zeuzkiguten beren kutsu eta aztarnak —hezur, jan hondakin, lanabes etab.—, lehengoak azpian, geroztikoak gorago, bakoitza bere garaiko mailan. Hala ikusten dugu Gatxarrian, Isturitzen, Olhan, Aizpitarten, Ekainen, Urtiagan, Ermittian, Lezetxikin, Bolinkoban, Axlorren, Lumentxan, Abittagan, Santimamiñen, etab.

Maila horik, bakoitza bere garaiko delarik, liburu baten orri bezala dira; bakoitzak bere aldiko berri agertzen daukula. Horien bidez ikas ditzakegu beraz, mailako gaiak ez ezik, bai orduko giro, landare, ihizi, giza azkazi, antzeak, arteak eta abar.

Aipatu ditugun oroitzapenak eta giza urratsak ez dira denak garai batekoak. Garai bakoitza, ordea, izen berezi baten bidez adierazten dugu. Hara hemen izenak eta esanahiak:

Lehenen: *Paleolitos Garaia* (harlanduaren garaia, alegia);

gero: *Mesolitos Garaia* edo erdiko hargaraia;

ondoren: *Neolitos Garaia* edo harlaban garaia;

azkenik: *Menasta Garaia*.


Paleolitos Garaia, geologilariak *Pleistokenos* deitu ohi dioten ludi haroarekin batsu iragan zen: Lau garren Haro nagusiaren lehen atala bera. Garai hartan gertatu ziren, lehen aipatu ditugun eguratsaren aldaketak: izozte eta zerrepelaldiak.

Paleolitos Garaia hiru harotan zuintua doa: *Lehen Paleolitos Haroa*, *Erdiko Paleolitos Haroa* eta *Geroztiko Paleolitos Haroa*, laugarren izozte haundiaren azkenerraino.


Ondoren *Mesolitos Garaia*: giroaren biguintzea, larrekien, zuhaitzen eta ihizien aldaketa, bizikeren berrikuntza, antze eta arte zaharren beherapena, berrien jaiotzea eta, gure lurralde honetan, oraingo giza azkaziaren sortaldia.

Neolitos Garaia: Harleunduzko lanabesen hasiera, eta abeltzaintza eta lurlantzearen hedakera.

Menasta Garaia: mealanen eta olagintzen sortze eta haztura (*ikus 1. eta 2. irudiak*).



1. ir.—Isturitz-Laminazilo: lubaiaren alde bat.



2. ir.—Santimamiñe: luzean luzeko lubaiaren alde bat.

I

EUSKAL HERRIA LEHEN PALEOLITOS
HAROAN


Lurbira honen Laugarren Haro nagusian jazoak dira hemen adierazi nahi ditugun gertakizunak eta gizakien haruntz-honuntzak.

Agian Riss izoztean eginak dira Euskal Herrian ezagutzen ditugun aztarnarik zaharrenak. Ordutik —orain dela 100.000 urtez gero— gure Lehen paleolitos haroa.

Garai hartan eskualde honek oraingo tankera izango zuen gehientsu. Behar bada itsas bazter guztiak ez ziren gaurko mailan; mendiak goraxeago; ordetak berriz ez orain hainbat sakonduak.

Lehen ageri zaizkigun giza azterrenak bizpahiru lanabes dira: *Abbeville-aldian* eginak, dirudienez. Harrizko haizkora traketsak, alde bietan koska motz eta sakonez landuak, aho edo ertz zorrotzekoak.


Ilbarrizko Larralde errekañoaren hegalean agertua da lanabes horietako bat, eskuhaizkoraren tankerakoa (3. irudia).



0 1 2 3 4 5 cm

3. ir.—Haizkora (Abbevill-aldikoa?), Larraldea izeneko Ilbarriz-en ondoan dagoen errekaño ertzean aurkitua (Passemar, 1914).


Lezetxikin, *Leibar* larruspeko apal baten gainean, bilatu genuen pikaziri antzeko harlandu bat, hargorrizkoa bera. Lezetxikiko betegarriak baino lehenagokoa baita, ba liteke Abbeville-aldikoa izatea (4. irudia).




4. ir.—Lezetxikiko pikaziria (**choppin-tool**), hargorrizkoa.

Geroztikoak —*Atxeul-aldikoak*— dirudite Lumbierren (1) eta *Haitzabalen* (Gasteiz inguruan) agertu ziren eskuhaizkora biek, aldizkako koska luzez landuak (5. eta 6. irudiak). Hauk Riss-Würm tartekoak, behar bada.

(1) Ikus Alejandro Marcos, Salvador Mensua: *Un hallazgo lítico del Paleolítico inferior del término de Lumbier (Navarra)* (Príncipe de Viana, 76-77 zkiak.)



5. Ir.—Atxeul aldiko haizkora, Lunbierren aurkitua.



6. ir.—Alde biko suharri haizkora, Gasteiz inguruko Altxabai muinoaren oinean agertua.

Lankai hauek, soil soil, ez daukute argi haundirik egiten garai haietako bizikerak ezagutzeko. Beste herrialdeetakoekin batera, ordea, zerbait erakuts lieza-kegute. Horregatik esan dezakegu eskualde honetan ordurarte ibili ziren gizakiak bi azkazitakoak omen zirela: batzuk *Maueranthropus* edo *Atlanthropus*; besteak *Homo presapiens*; ordutik hemen agertu zela hirugarren giza azkazi hau: *Homo sapiens primigenius*; beronen bizikeraren oinharria bilketa zela, chiza batez ere; *Rhinoceros etruscus*, *Elephas trogontherii*, hartz haundiak eta beste ihizi asko bere inguruan zituela; ehiza, ordea, piztiengandik (lehoi, hiena,

otso, etab.), aski galbidetsu gehienetan ikusten zuela; harrizko, eta zurezko izkiluekin eta, batez ere, suaren bidez, piztiak uxatzen zituela; laguntza haundiena ordean, bere lanbide honetan elkartzeak zekarkiola, gizaki askoren artean uxa-ehiza eginaz jakia biltzen zutela.


II

ERDIKO PALEOLITOS HAROA

Riss-Würm tarteko giro biguinean eta Würm izoztearen lehenaldian. 40.000 urtez Kristoren aurretik bere azken muga. *Mustier-aldia* bere izena.

Aldi hartako giza bizileku eta aztarnategi batzuk ezagun ditugu Euskal Herrian: Dimako Axlorren, Arrasateko Lezetxikin, Olazagutiako Koskobiden, Urban, Miarritzeko Xabiagan eta Lannes-dorren, Baiona inguruko Basté-n, Villefranche-ko Duboskoa-n, Ganboko Olhan, Isturitzeko Laminazilon, Gatzarrian, etab. Begira Lezetxikiko eta Isturitzeko oroiak (*ikus 8. irudia*).

Axlorren, Lezetxikin eta Isturitzen azaldu ziren giza hezur eta haginak. Toki hauetan eta aipatu ditugun besteetan ba ziren hezur eta lanabes asko. Hauen bidez ikasi dugu orduan hemen bizi zen gi-



8. ir.—Lezetxikiren eta Laminaziloren oroiak.

1: A, Arberua aldeko ateka; I, Isturitz aldeko ateka.

2: a, hegoaldeko ateka; e, barneko azterketen arloa; at, atariko azterketen arloa; I, Lezetxe aldeko ateka.


zakia *Homo primigenius* zela. Bekoki atzerantz zantpatua zuen, bekain irtenak, okotz tuturgabea, buru luzea.

Lehenengotik giro biguina; gero, Würm izoztean, biziki hotza. Landetan bizitokiak; harpeetan, behar


bada, gehienak. Ihizien okela janari zuten, haien sukaldeetako hondakinek adierazten daukutenez. Sua ba zerabilaten nonnahi.

Inguruan ahuntzak, basahuntzak, orkatzak, oreinak, zaldiak, behiak, bisonteak, arrangiferak edo errenoak, adarbakarrak eta, zenbait lekutan, *Elephas* haundiak. Bai eta piztiak ere: hartz, katamotz, lehoi, e. a.


BIZIKERAK.—Aipatu ditugun ihiziak eskuratzeko ez ziren aski orduko izkiluak. Uxa-ehiza behar zuten erabili: ehiztariek, elkar eginaz, zarata haundien



7. Ir.—Aitzinbiko tintol-haizkorak: 1, Urbasakoa; 2, Koskobilkoa.




9. ir.—Olhako mustier haizkorak: aurrez eta ertzetik.




10. ir.—Lezetxikiko haizkora.

bidez ihiziak izutu eta mendiarro edo harrate batera sarreraziko zituzten eta han, aurrez eta asmoz egin-dako zulo batean, honda erazi. Edo eta ihiziak izutu, irteera eta iheslekutzat malkorgain bat eskainiaz; berehala handik beherantz amildu zitezen. Hori egiten zuten, dirudienez, Axlorren, Olhan etab. Ho-rrela eskuratu behar ihizi haundi narru lodidunak behintzat; ttikiak berriz, izkiluz eta artetz.



11. ir.—Axlorko haizkora.

Beste bizimolde bat ere ba zuten, noski. Izkilu eta beste lanabes asko zerabilaten: harriz, hezurrez eta adarrez eginak; zurezkoak ere bai ugari, ezin uka. Baina suharrizkoak eta arbel gogorrezkoak ageri dira gehien. Ongi landuak askotan, traketsak aldeetan: haizkoraren egitea zuten batzuek; marruskarena, ziriarena, karraskailuarena, garrangarena eta gezi murturrarena beste askok. Haizkol tankera dutenak Isturitzen, Olhan, Duboskoan, Basté-n (St. Pierre-d'Irube), Lannes-ko dorrean (Miarritzen), Urbasañ eta Koskobiden batez ere, *Atxeul-aldiko* ondorioa; ka-




12. ir.—Mustier aldiko karraskailuak: a, b, c, Axlorkoak; d, Lezetxikikoa.

rraskailuaren, garrangaren eta gezi muturraren tan-
kerakoak ausartki Axlorren eta Lezetxikin. Begira 5.,
6., 7., 9., 10., 11., 12. eta 13. irudiak.

Karraskailu asko zerabilaten bizilekuetan, lanabes
hauk era askotakoak dira: ertz konkordunak, zoko-
dunak eta zuzendunak, ertz bi batukoak, albokoak,
zeharka landuak eta abar.

Garrangak edo hagindun harprintzak ere sarri
ageri dira; bai eta albo koskadunak ere.



13. ir.—Axlorko garrangak (goian) eta gezi muturrak (behean),
Mustier aldikoak.


Ez dira lankai hauk egikera berdinekoak. Batzuek jokiz edo ziriz eginak dirudite; besteak mailaz maila eginiko koska luzez landuak; asko berriz, koska xabal ezkatakidekoz, eta abar.

Antze-jakintzen bidez egindako eskulanak beraz; horretan bereiztatuen egintzak, alegia. Zertarako? Dirudienez, batzuk ehizarako; zura lantzeko eta okela ebakitzeko beste asko.

Zer janzkera zerabilaten ez dakigu; baina Isturitzeko eta Axlorko lurgorri koskoek soina margoz apaintzeko ohitura agian adieraz liezakegute.

Beren elkartea nola eratua zuten ere ez dakigu; baina ihizi haundiak eskuratzeko, lagun askok elkar egin behar zutela ez dago zer esanik. Beraz etxeaz gain ere beren lanerako elkargoak ba zituztela esan dezakegu, bai eta gizabidearen arauera ere.

Gizabidea ordea, gizakiari eta beronen ikusbirari eragiten dion goi mailan oinharritua inoiz ageri. Zenbait lekutan —Euskal Herritik harat— aldi honetako giza soinak arduraz ehortziak zeuden, beren babesgarri eta margokiekin. Antze-jakintzari eragiten zion gogoeta zebilala hor esan liteke.



14. Ir.—Axlorko irudi bat hargorrian egina, Mustier aldikoa.

III

GOIEN PALEOLITOS HAROA

Kondaira aurreko hirugarren maila haundia dugu *Goien Paleolitos Haroa*: Kristo baino 40.000 urtez lehenagotik 8.000 arteraino.


Lehengo haro bietan baino lagunalde haundiago zebilala orain Euskal Herrian iruditzen zaiku. Leku gehiagotan ba ditugu garai honetako giza aztarnak, nahiz eta haro hau lehenak baino laburragoa izan.

Eguraldi hotza, Würm izoztea oraindik, aldaketa batzuk gora behera: giro hezea eta gandutsua lehenen; hotz lehorra azkenaldean. Gure eskualde honetako mendi haundienetatik elur izoztua gain behera, geldiro baina gogorki, irixtaka zetorren beti. Bide erdian urtzen zen eta hibaiei sortzea ematen. Orain Britainia Haundiaren iparraldean dagoen giroa bera hemen zegokeen garai hartan, gure ustez.

Giroaren arauera zebiltzan *zur-belarrak*: zuhaitz txikarrak gehientsu; garaiko aldeetan eta babespeko lekuetan zenbait belardi eta baso mardul: urritza, lerra, haltza, zumarra eta txilarra behintzat, gure lur apaletan.

Ihiziak ere, batzuk behintzat, giroari zegozkionak: Hotzetako errinokeroa, arrangifera eta elefante ileluna. Horiekin zebiltzan zezenak, bisonteak, zaldiak, oreinak, basahuntzak, orkatzak, ahuntzak, basurdeak, hartzak, otsoak, e.a. Horien hezurak ageri dira Euskal Herriko harpe eta garai hartako beste aztarnategietan: Santimamiñe, Lumentxa, Atxeta, Bolinkoba, Ermittia, Urtiaga, Aizpitarte, Duboskoa, St. Pierre-d'Irube, Isturitz, Basté, etab. (*ikus 15. irudia*).

GIZAKIA.—Europako alderdi honetan, Neanderthalgo gizakiaren ondoren —Goien Paleolitos Harroan, alegia—, beste azkazi batzuk ageri zaizkigu: *Homo sapiens sapiens* delakoaren kimuak, *Crô-Magnon* izenekoa batez ere. Soina aski luzea, dolikokefalkideko burua, aurpegi zabala, bekoki irtena, okots tutur zuena. Gizaki hau hedatua zegoen Euskal Herrian: hala dakusagu Itziarren Urtiagako aztarnategiak, azkazi horren gisako hezurak bertan aurkitu baititugu. Goien Paleolitos Haroaren azkenaldikoak dira eta beraien bidez ikasi dugu Crô-Magnonkideko gizakia euskal azkazirantz aldatzen ari zela— aurpegi isladaren zuzentzea, beronen luzetzea eta matrailhezurraren mehetasuna.




15. Ir.—Paleolitos garaiko aztarnategiak Euskal Herrian
(osoki edo zerbait aztertutak).

BIZIKERAK.—Orduko lagunak zertaz bizi ziren ezagutzeko, bidezko dugu, haien eguraldia eta lurraldea ez ezik, nongo eta nolako aterpe edo bizilekuetan zebiltzan jakitea ere.

Haien aterpeak, gaurdaino dakitzagunak behintzat, itsasalderantz begira dauden lurralde eta mendietan daduzkagu; ez ordea 500 metroz goitik.

Aterpe horik, harpeetan; beraz arrauka haitzetan. Ez ordea hor nonnahi: harrate gainetan, hibai biltokietan, ibar eta goi ordeken sarreretan batik bat. Dirudienez, ihizien ibiltokietatik hurbileko harpeak aterpetzat aukeratzen zituzten. Hala dira behinik behin *Polvorin* eta *Venta Laperra* Karrantzakoak, Santimamiñe, Bolinkoba Abadinokoa, Atxuri Mañarikoa, Abittaga Amorotokoa, Ermittia eta Urtiaga Debakoak, Ekain Zestoakoa, Altxerri Aiakoa, Aizpitarte Errenterikoa, Lezea Sarakoa, Haristoi eta Laminazilo Donamartirikoak, eta abar. Hemendik eta aterpe horietan aurkitu ditugun jan hondakinen bidez igartzen diogu nolako bizikera zerabilaten orduko lagunek: ehiza, alegia, beren aurrekoak bezala, nahiz eta beste ohikunde eta egintzak berdinak izan ez.

Goien Paleolitos Haroko lagunak egintzetan eta hezieran ere, mendez mende, zenbait aldaketa ageri dira. Horregatik haro horretan aldi batzuk berezten dituzkegu: *Châtelperron*, *Aurignac*, *Gravette*, *Solutre* eta *Madeleine* aldiak. Izen hauk herrien izenak dira: Herri horietan agertu baitziren lehenengoz aldi bakoitzeko ezagugarriak edo azterrenak.



16. Ir.—Châtelperron aldiko lanabesak Santimamiñen: a, ige-
kia; b, c, marraizkoak; d, zulakaitza; e, mutur zulakaitza;
f eta g, muturtxo ertz malkardunak; h, karraskailua.

CHÂTELPERRON ALDIA.—Giro hotza beti. Baina Mustier aldiko giza azkazia eta eskulangintzak aldatu egin ziren. Horrela erakusten daukute, batez ere, Lezetxikiko eta beste harpe batzuetako bizitokietan aurkitu ditugun langailuak.


Lehen, Mustier aldian, harriprintzaz eginiko lanabesak gehien; orain harrigekiz edo orriz eginak eta horietan berezienak ikutu malkartsuz landuak. Santimamiñen, aztarnategiaren oin oinean ageri diren ertz gupidun muturtxoak, zulakaitz zeharka moztuak, marruxkak, malera edo karraskailuak, aldi honetakoak direla dirudi. Basté-n ere aldi bereko tresnak agertu dira (*ikus 16. irudia*).

AURIGNAC ALDIA.—Giro hotza, bai eta goietan elur eta horma sendoak ere urte guztiko.

Urritza, lerra, haltza, zumarra eta txilarra ziren gure mendien janzkera.

Giroari zegozkion ihizi mota batzuk, arrangifera batez ere eta beste ihizi asko. Oreina, ahuntza, bisontea, zezena, zaldia eta hartza ba zebiltzan beti. Eta ihizien artean, ehiztariak: aldi hartan gure lurralde honetan bizi ziren lagunak.


Harrizko lankai berri asko zerabilaten beren lanetan, bai ehizan, bai zurgintzan, harakintzan, hezur eta adar lantzen eta larrugintzan. Ertzetan koskaz landutako igeki ederrak, zulakaitz mutur mehararak, marruxkak (konkortuak, tunturtuak, muturkidekoak), zanpagai edo mailuak, e.a. (*ikus 17. irudia*).



17. ir.—Aurignac aldiko lanabesak: a, b, c, Isturitzko marraizkoak; d, Santimamiñeko marraizkoa; e, Santimamiñeko igekia; f, Isturitzko zulakaitza; g, h, i, Santimamiñeko zulakaitzak; j, k, Santimamiñeko eta Lumentxako igeki albo koskadunak.

Aipagarriak dira hezurrezko lanabesak ere: ezten pitzatuak, ezten burudunak, makila zulatuak, harpikoak eta zulakaitz muturtxabalak.

Ba zituzten zintzilikai eta kutunkideko gauza batzuk: basahuntzen eta beste ihizien hortz zulatuak,



18. ir.—Aurignac aldiko hezurrezko lankaiak: a, Santimamñieko ezten ondo pitzatuduna; b, c, d, Isturitzko orratz, edo ezten, makil zuladuna eta xilibitua.

maskor eta hezur koskatuak, e. a. Lurgorri puskak, igortziz mehaturiko burdinarriak eta kuartzo kristalak ere, behar bada beren onuragarritzat zerabiltzaten. Hiru zuletako hegazti hezur bat Laminazilon (Isturitzen) azaldu zen: dakigun xilibiturik zaharrena, dirudienez (18. *irudia*).


Ihizien iduriz beren gogaiera eta eskariak agertzen hasiak zirela aldi hartako gizakiak esan deza-



19. ir.—Aurignac aldiko marrazturak: 1, 2, 3, 4, Laperrakoak;
5, 6, 7, Alkerdikoak.

kegu. Karrantzako Laperrako harpe labarrietan marraztu zituztèn hartz, bisonte eta abelgorri batzuen irudiak, bai Laminazilon ere, eskuetan zerabiltzaten harri eta hezurretan, batik bat (*ikus* 19. irudia).


Laburki beraz, hona hemen orduko bizikeraren ezagugarriak: *ehiza*, batez ere uxa-ehiza, gehienentzat; *eskulana*, lanabes, ontzi, jantzi eta kutunak



20. ir.—Gravette aldiko muger lanabesak: a, b, Isturitzko zulakaitzak (Passemar); c-l, Bolinkobako zulakaitzak (Noailles-kidekoak gehienak); m, n, muturtxoak; o, muturtxo hegal zantuduna; p, q, eztenak; r, s, t, muturtxo eta igei ertz zantuduna; u, v, garrangak.

egiten antzetsu ziren lagunentzat; *ertigintza*, edergailu eta irudigintzan ari ziren lagun berezientzat.

Gizabidea: Arestian aipatu ditugun ihizi irudiak ez dira noski jan beharrez edo atsegin minez baten batek sortuak, antze jakintzari gaindik eragiten dion gogoetaz eta gurariz baizik. Irudi horik, behar bada, Jainkoaren edo jainkozko izakien ezagugarriak zira-



21. ir.—Gravette aldiko hezurrezko tresnak: a, b, Isturitzko bi muturdun ziri zabala eta makil zuladuna; c, Santimamiñeko eztena; d, Bolinkobakoa; e, f, g, Bolinkobako sastakaia, hezur marraduna eta jostorratza.


tekeen; geroztiko euskaldunen ustez, harpeetan egoten ziren jainkozko izakiek ere irudikunde bera baitzuten.

GRAVETTE ALDIA.—Aurignac aldia luze zihoan, baina orain dela 25.000 urte azkenetan zebilan. Langaien alaketak adierazten dauzkigu aldi honen muga eta ondorengoarena: *Gravette aldiarena*, alegia.


Bolinkoban, Santimamiñen, Ataungo Haizkibelen, Aizpitarten, Duboskoan, Donepetri Irubekoan eta Isturitzen batez ere, ba ditugu aldi honetako hondakin eta oroigarri asko. Egikera berria ageri dute orduko lanabes batzuek, bereziki suharri ezten txo eta igeiki meharrak —ertz batetan malkartsuz landuak— eta *Noailles* izeneko zulakaitz lepodunak. Hauk dira suharritzko lankai ezagugarrienak (*ikus 20. irudia*).

Hezurrezkoak dira beste batzuk: sastakai marraztuak, alegia, orratz eta eztenak, zotz lerrodunak, maskor eta orein hagin zulatuak —tintilak— eta mugerloreak (*ikus 21. eta 22. irudiak*).

SOLUTRE ALDIA.—Urteak milaka zihoazen, irudiz aldaketa haundirik gabe. Nahiz eta lehengo tresnek ba zuten oraindik zeregin eta izango ere, direla 20.000 urte, ordea, tankera eta antze berriko lanabes batzuk zebiltzan eskuetan: orri tankerako mugerturrak, alegia, ezkata gisako eta ikutu zabalez gain bat landua zutenak. Ba ziren bizpalau motatako marrixkak, zulakaitzak —aldebikoak eta burubazterrekoak—, igeikiak eta ezten malkartsudunak. Bai eta hezurrezko ezten xabalak eta biribilak ere; zotzak, alderdi bat biribil eta bestea xabal zutenak eta lerroz



22. ir.—Gravette aldiko tintil eta harri irudidunak: a, Isturitzko hortz zuloduna; b, c, d, Bolinkobako orein letagina, lit-torina eta nassa; e, f, g, Isturitzko hartxabal marraztuak (orein irudia, zezenarena eta basakerrarena), (St. Périer).




24. ir.—Solutre erdi haroko tresnak: a, Isturitzko muger orria, bi aldeetatik landua; b, Bolinkobakoa; c, muger muturtxo ertz

24. ir.—Solutre erdi haroko tresnak: a, Isturitzko muger orria, bi aldeetatik landua; b, Bolinkobakoa; c, muger muturtxo ertz zanpatuduna; d, zulakaitza; e, marraizkoa; f, laban ahoa; g, hezurrezko ezten edo azagaia; h, ezenttxoa; i, tintila (lit-torina obtusata); denak Bolinkobakoak.

tan landuak, batzuek, besteak batekoak eta oina mako. Gainera harlanabesak Gravette aldikoen antzekoak.


Hezurrezko lankaiak era askotakoak: eskuziri edo makila zulodunak; ezten batzuk oina alde batez mihiztotua dutenak, besteak oin motzdunak; ziritxoak, jostorrazak, e. a. (ikus 24. irudia).

Solutre azkenaldian muger orriek —alde bietan landuak, alegia— beste aldaketa bat agertzen dau-




25. ir.—Azken Solutre aldiko suharri lankaiak: a, Bolinkobako mugur orriondoa; b-h, Aizpitarteko mugur orriak; i, j, zulakaitzak; k, marraizkoa; l, zulakaitz marraizkoa; m, txutxurru marraizkoa; n, muturtxo bizkar zanpatuduna; o, arbel zanpagala (hauk guztiok Aizpitartekoak).

kute: oin xoko edo eta koska, nahiz erdian nahiz aldamenean, dutela. Ba dira beti laban antzeko orriak, marruxka biribilak eta orri marruxkatuak eta Gravette ziri ertz malkartsudunak (ikus 25. irudia).




26. ir.—Azken Solutre aldiko hezur lanabesak: a, b, Bolinbako eztena eta gezimuturra; c, Isturitzko muturbikoa; d, Ermittiako muturbiko xabala; e, f, g, Aizpitarteko eztenxoak.



27. ir.—Azken Solutre aldiko tintilak: a, b, c, d, e, Bolinkobako eta Aizpitarteko hagin eta izpelki zulodunak; f, g, h, Isturitzko haginak; i, j, Bolinkobako hezur zulatuak; k, l, Isturitzkoak; m, n, Isturitzko hezur landuak; o, p, Aizpitartekoak; r, Isturitzko tintiltxoak.

Aldi hartako lagunek ere harrian, hezurrean eta harpeetako labarri ezkutuetan marraz eta irudiz beren aburuak adierazten zituzten. Hemengo bizikerari eragiten zioten buruzpideak, dirudienez; haien ikusbiratik haratago zihoan gogoeta ere bai, Isturitzko harmoldak, adibidez (*ikus* 26., 27. eta 28. irudiak).


Solutre aldiko orri landuak suntsitzen doaz eta Gravette aldiko muger ziriak eta hezurrezko nahiz



28. ir.—Azken Solutre aldiko irudi batzuk: **a**, Isturitzko makil zuladun batean zaldi buru eta arrain bat; **b**, **c**, **d**, Isturitzko harri eta hezurretan ageri diren bisonte, arrangifer eta hegaztiaren irudiak; **e**, Bolinkobako harri batek dadukan irudia.


adarrezko lanabesak ugaltzen. Aldakuntza hau dugu beste aldi baten hasiera eta mugarrria. Hamabost mila urte iraganak dira geroztik.

MADELEINE ALDIA.—Solutre aldiko orri-mutur zabalki landu haien ohikuntza galduz zihloan eta berriro Gravette aldiko muger eztenak ugaltzen hasi.



29. ir.—Lehen Madeleine aldiko suharri langintza: a, Santimamiñeko igekia; b, c, d, Santimamiñeko muturtxo ertz zanpatudunak; e, f, Bolinkobakoak; g, h, Urtiagakoak; i, Urtiagako zulakaitza; j, k, Bolinkobakoak; l, m, Bolinkobako marraizkoak; n, Santimamiñekoa; o, Bolinkobako zulakaitz marraizkoa.

Hezurrezko eta adarrezko lanabesak ere ez gutti. Aldaketa, beraz. *Madeleine aldia* hasten da. Hamabost mila urte dira hori jazo zela. Orduko giroa oso gordina, izozte gogorra (*ikus 29. irudia*).




30. Ir.—Lehen Madeleinaldiko tresna marraztuak: a, Santima-
mifeko harrizko zanpagaia (bi piztiren irudiekin, agian aze-
rienak); b, Bolinkobako hezurtxoa; c, Bolinkobako harrizko
zanpagaia, ahuntz irudi birekin.

Lehengoetan, mamut haundia eta adarbakar iletsuak zebiltzan hemen; bai eta arrangifera eta hartzak ere. Horiez gainera, zaldiak, zezenak, oreinak, basahuntzak, orkatzak, basakerrak, ahuntzak, basurdeak, sarrioak, erbiak, e. a. Hegaztiak ere izentatzekoak dira, batez ere pago-usoak, eperrak, faisanak, beleak, beltzurdak, zozoak, harfangak (elurretako gauontz zuri bat), ahateak, arranoak eta ontzak.


Ihizi horien hezur eta aldi beroko gizakien lanabes, ertilan, kutun eta marraztura asko ditugu Euskal Herrian agertuak, batez ere Bolinkoban, Santimamiñen, Atxetan, Lumentxan, Abittagan, Ermitian, Urtiagan, Ekainen, Altxerrin, Aizpitarten, Turren, Alkerdin, Berroberrian, Isturitzen, Etxeberriko karbian, Sasixiloagan, e. a. (*ikus* 30. *irudia*).

Aldi luzea baitzen, aldakuntza batzuk gertatu ziren bitartean, lanabes, kutun eta ertilanetan batez ere. Hori dela eta, hiru une edo mende berezten ditugu, Madeleine aldiko aldakuntzei buruz. Urtiagan orde, bost mailatan ageri dira aldi artako aztarnak. Hara nola.

Lehenik, suharrizko igeki asko: batzuk gaineretik koska luzez landuak Solutre aldiko orrien tankeran; besteak mutur zorrotzdunak, bai eta ertz edo bizkar malkortua duten igeki eta ziritxoak ere; marruxka konkortuak, biribilak, igeki burukoak eta zokonak; buru buruko zulakaitzak eta buru bazterrekoak. Suharrizkoekin dabilta hezurrezko langaiak ere: eztenkidekoak, asko beren oina, alde batetik nahiz bietatik, mihiztoduna dutenak; zubilak gehienak, laukikoak




31. ir.—Lehen Madeleinaldiko hezurlankaiak eta tintilak: a, b, c, i, Bolinkobako azagaia, makil zuladuna eta gezi muturra; d, e, f, g, h, j, k, Urtiagako ezten eta gezi muturrak; l, Urtiagako jostorratza; m, p, Bolinkobako hezur xirrika eta turritella; n, o, q, r, Urtiagako hortz eta izpelkiak; s, Aizpitarteko tututxo.




32. ir.—Erdi Madeleinaldiko harlangintza: a, b, c, d, Santimamiñeko eta Urtiagako zulakaitzak; e, Urtiagako haiztoa; f, g, Urtiagako eta Santimamiñeko marraizkoak; h, i, j, Urtiagako muturtxo eta garranga ertz zanpatudunak; k, Santimamiñeko mutur edo haiztotxo bizkar zanpatuduna.

batzuk; xabalak edo erdi zubilak besteak; erretendunak zenbait eta marraztatuak; sorgin guraizen irudiz apainduak, e. a. Ba dira jostorrazak ere aldi honetan. Kutuntzat edo babesgarritzat daduzkagu *littorina obtusata* direlako izpelki zulatu asko; bai eta zenbait lapa zulodun eta orein hagin eta beste hortz zulatu asko ere (ikus 31. irudia).



33. ir.—Erdi Madeleinaldiko harlangintza: Aizpitarteko zorrotarria eta zanpagaia.

Bigarren aldiko mailan, suharrizko lanabesak eta gezi mutur eta haiztoak lehen bezalakoak ageri dira; ba dira ordea garrangaren egitea dutenak ere (*ikus 32. irudia*). Hezurrezko lanabesak —ezten eta jostorratz— lehengoan antzekoak gehientsu, baina azalean hildotuak asko, eta batzuek ahuntz buruaren islada ageri (*ikus 33. eta 34. irudiak*). Garai berekoak litezke Santimamiñeko, Goikolaiko, Altxerriko, Isturitz-Harixtoiko, Etxeberriko eta Sasixiloaga-




34. ir.—Erdi Madeleinaldiko hezurlangintza: a, b, c, Aizpitarteko makil zuladuna, jostorratza eta ezten lodia (oina mihizto batekoa eta muturraldean zortzi lerro makur dituen); d, f, Lumentxako eztenak (batek ondoa urkilduna; besteak gezi irudiko marraztu bat); e, g, h, i, Santimamiñeko ezten eta gezi muturrak; j, k, Lumentxako eta Santimamiñeko arrankaziak; l, Aizpitarteko hagin zuloduna (tintila edo kutuna); m, n, Lumentxako eta Aizpitarteko littorina zulatuak (kutunak?); o, Urtiagako arrankazia.

ko labarri irudiak (*ikus 35-39. irudiak*). Maskor eta *Turritella* zulatuak, suharrizko harriloreak, e. a. dira Urtiagako kutunak aldi honetan.



35. ir.—Erdi Madeleinaldiko tresnen irudiak: a, Santimamiñe-ko hezurreen zezen antzeko marrazkia; b, c, Lumentxako har-txabal baten bi aldeetako zaldi irudiak; d, Urtiagako har txabal baten zaldi irudia hildoz marraztua.




36. ir.—Santimamiñeko labar irudiak (zaldi eta bisonteak).



37. Ir.—Santimamifeko labar irudiak (hartza eta oreina).



38. Ir.—Santimamiñeko labar irudia: bisontea.



39. Ir.—Santimamifeko labar irudia: bisontea.




40. ir.—Ekaingo ihizi sail bat: zaldiak, bisontea, ahuntza, etab.




42. ir.—Azken Madeleinaldiko hezurlangintza: **a**, Urtiagako arrankazi baten heldulekua; **b**, Santimamiñeko arrankazia; **c**, Urtiagako arrankazia; **d**, Urtiagako eztena; **e**, Aizpitarteko gezi muturra; **f**, Atxetako makil zuladuna; **g**, **h**, Urtiagako ziri edo muturrak; **i**, Urtiagako jostorratza; **j**, Aizpitartekoa; **k**, **l**, Urtiagako hagin zulodunak; **m**, Urtiagako harrikatz zuloduna (tintil edo kutuna?).

Hirugarren uneko langaien artean harrizko muturtxo edo ezten asko dira; bai eta orrixxak ere, hegal bat malkartua dutenak; hiru motatako zulakai-



41. ir.—Azken Madeleinaldiko harlangintza: a, b, c, Urtiagako zuiakeitzak; d, e, Urtiagako marraizkoak; f, g, h, i, j, Urtiagako halzto ahoa eta mutur landuak; m, n, o, Urtiagako tastainak; p, q, Urtiagako garrangak; r, s, t, u, v, x, y, Atxelako garrangak



43. ir.—Azken Madeleinaldiko hartxabal marraztuak: **a**, Aizpitarteko orein irudia; **b**, Urtiagako ahuntz burua; **c**, **d**, Urtiagako zaldi eta orein irudiak.

tzak, marruxkak ere hiru eratakoak eta barekideko orriak (*ikus 41. irudia*). Hezurrezkoetan ba ditugu eztenak, jostorratzak eta arrankaziak (hauk garranga bakarrekoak eta heldulekutzat kosko bat edo bi dituztenak) (*ikus 42. irudia*). Azkenik harrixabalak zaldi irudi eta beste, marraz eginak, ageri dituztenak (*ikus 43. irudia*). Garai honetakoak dirateke, non-bait, Ekaingo labarri irudiak (zaldi, bisonte, orein, ahuntz, arrain eta hartzenak) (*40. irudia*).

Laugarren mailan, harlanabesak lehengoan antzekoak gehien. Ba dira ordea zanpagai marradunak, labanak, garrangak edo zerrak, eztenak eta muturtxo hegala malkartuak eta gezi muturraren egitea dutenak: Hezurrezko ezten eta geziak ere ugari; marradunak asko. Makila motz zulodunak ere bai, eta zazpi arrankazi koskodunak eta garranga banakoak. Kutun kideko hagin zulatuak gainera, lapa zulodun bat eta hartxabal bi, ahuntz buruaren irudia dutenak.

Bostgarren mailak ere ba ditu anitz harlandu, batez ere zulakaitz, marruxka, garranga, ezten, gezi mutur eta orrixka bizkar malkartuak. Bai eta hezurrezko ezten eta izkilu asko ere marraz apainduak; gainera zazpi arrankazi garranga banakoak eta heldulekua kosko dutenak (bat ordea zuloduna) eta makila motz baten puska (heldulekua). Orein hagin eta azeri hortz zulatuak kutuntzat erabiliak, noski. Hartxabal batek marraz eginiko zaldi irudia daduka. Azkenik, ba dirudi hezurlangaiak bakandu eta harrizkoak zirela nagusitu.

Aipatu ditugun ertilan eta irudiek, harpeetako labarrietan ageri direnek batez ere —Madeleine al-dikoek, alegia—, Santimamiñen, Goikolauan, Ekainen, Altxerrin, Alkerdin, Isturitzen, Sasixiloagan eta Etxeberriko karbian iraun dute gaurdaino. Orduko gogaieren ezagugarri eta irudikurrak direla ezin uka. Zer gogaiera ordea? Zer adierazi nahi daukute ikur horiek?

Sekulako ilunpean, toki ezkutuetan eta bazter ibilkaitzetan eginiko irudiak ez dira lagunak ikusgai-

tzat bakarrik asmatuak, noski. Guri eragiten daukun zerbaiten ezagugarritzat eginak, dirudienez: otoitz baten agergarriak behar bada. Hauen aterpe eta kokalekuak dira horretaz gure lehen elizañoak (1).

(1) Barandiaran J. M. *Euskalerriko leen gizona*, 50 orr. Donostian, 1934ean.


IV

MESOLITOS GARAIA

Würm izoztearen azkenaldia eta Lumentxako *Littorina littorea* izeneko izpelkien amaitzea batera zebiltzan. Madeleinetar heziera ere azkenetan. Ehiztarien eginkizun haundia ttikitzen ari zen. Goien Paleolitos Haroa iragan eta Mesolitos garaia hasten: orain dela hamar mila urte.

AZIL ALDIA.—Giroa biguntzen zihoan; lehengo ihizi batzuek alde egin zuten hemendik. Belar, baratzaki eta zuhaitzak hazkurri berri eta mardulagoak ematen hasi; gure mendiak izotz eta elurretatik garbitzen ari. Harpeetan ez ezik, ibar zabaletan eta goi mendietan ere bizi ahal zitekeen oraingoan gure gizakia (2).

(2) *Mas-d'Azil* delako frantses herritik heldu baitzen lehenengoz garai honetako gizakien berri, horregatik iraganaldi honi *Azil aldia* deritzo.




44. Ir.—Azilaidiko harlangintza: a-g, Atxetako igeiki eta muturtxo bizkar zanpatuak; h, Bolinkobako muturtxoa; i, j, k, Santimamiñeko tresnak; l, m, n, o, p, q, Atxetako zulakaitzak; r, s, t, u, Bolinkobako marrazkoak; v, Santimamiñeko koskadun igeiki; x, Santimamiñeko tastaina; z, Atxetako zanpa-gaia; y, Urliagako harmailua.

Orduko lagunak ez zituzten ordea harpeak erabat utzi eta oraino maiz ehizan zebiltzan eta hortik zuten janaria askotan biltzen; baina ba zekiten lurretik eta itsasotik ere hazkurria sortzen. Inguruan zituzten zaldia, behiak, oreinak, basahuntzak, orkatzak, basakerrak, eta abar. Bai eta hegaztiak ere, batik bat: pagoilarrak, antzarrak, zozoak, zapelatzak, eskusoak, pagusoak, e. a. Itsasoan edo itsas ertzetan biltzen zituzten arrain batzuk eta izpelkiak, batez ere ostrak, xirlak, mangolinoak, muxkuiluak eta lapak. Hauen aztarnak eta beste askorenak agertu izan dira aldi horretako lagunak ibili diren tokietan: Santimamiñen, Atxetan, Lumentxan, Bolinkoban, Silibrankan, Laminen eskatzen, Urtiagan, Ermittian, Berroberrian eta Isturitzen.

Beren langintzan ba zerabiltzaten mikrolitos landu ugari —xirringil eta ilargi erdiaren tankerakoak—, bai eta lehengoan antzeko beste harlanabesak ere: marruxka biribilak eta luzeak, zulakaitzak (erdikoak eta buru bazterrekoak) tastain eta hiru buruko muturtxoak, orrixka eta muturrak, batez ere ertza lerdan zanpatua dutenak, orri koskatuak, haiztoak eta zanpakiak eta matxuka haundiak (*ikus* 44. *irudia*).

Hezurrezko langaietan ba zituzten ziri xabalak eta biribilak; bai eta arrankaziak ere, beren egikeraz bereziak, xabalak eta heldulekuan zuloa dutenak (*ikus* 45. *irudia*).

Ez zuten gehiago labarrietan eta langailuetan pinturaz eta marraz egiten irudirik: lehengo irudiku-



45. ir.—Azilaldiko hezurlangintza eta tintilak: a, Ermittiako arrankazia; b, Atxetakoa; c, Lumentxako eztena; d, Ermittiako gezi muturra; e, Aizpitartekoa; f, Aizpitarteko eztena; g, Aizpitarteko furrunfarra; h, Urtiagako orein hagin zulatua; i, Lumentxakoa; j, Bolinkobako littorina zuloduna; k, turritella zulatua, Bolinkobakoa; l, Aizpitarteko maskor zuloduna.

rrak itzali ziren; agian lehengo sinesmenak ttikitu eta berriak heldu egin ziratekeen.


Giroaren biguntzeak, lurraren gozatzeak, mendi lurren zabaltzeak eta hezetasunez janzteak, lurpetik

harat bizi ahal izateak, janaren aldakuntzak eta lanbide berriek hasi erazi zuten hemengo gizakiaren aldaketa. Hori dakusagu Urtiagan aurkitu ditugun giza hezurretan. Crô-Magnon izeneko azkazia, gure eskualde honetan, oraingo euskal tankera hartzen ari zen. Beraz gaurko euskal egitea —soinarena— ordutik datorkigu.

V

GOIEN MESOLITOS HAROA

Bost bat mila urtez guttienez Jesukristo baino lehen hasita, aldi luzean oraino, gure aurrekoek ehi-zatik, ale eta barazkietatik beren hazkurria biltzen zuten. Izpelkietatik ere bai, itsasaldean bizi zirenak behintzat. Itsas maskor pila haundia utzi zeukuten aldi hartako lagunek Santimamiñeko harpean. Han ba dira aunitz ostra, xirla (*Tapes*), *Scrobicularia*, muskuilu (*Mytilus*), mangolino (*Monodonta*), margola (*Gardium*), lapa (*Patella*) e. a. Maskorrekin eta arrain hezur batzuekin nahasian zeuden ordea lurreko ihizien hezurak ere. Hauek aski erakusten daukute orduko lagunek itsasotik hainbat janari, biltzen zutela ehizatik. Horretarako baitzituzten inguruan oreinak, basahuntzak, orkatzak, basakerrak, basurdeak eta —nahiz asko guttituak izan— behi eta zaldiak; bai eta hegaztiak ere: uso, eper, zozo, ahate, antzar, arrano eta beste.



49. ir.—Azken Mesolitos haroko harpikotxa (Astur aldikoa), Ibarritzko Errotaldean (Mouligna).

Miarritzetik hurbil, Larraldeko ordekan, Mouligna izeneko tokian ere ba da haro honetako aztarnategi bat (*ikus 49. irudia*).


Giro biguna eta, horri esker, gizakia bizi zitekeen harpeetatik at, bai eta landareetatiko hazkurria erdietsi ere basoetan nahiz luondoetan.

Beraz oraindik biltzaileen bizikera; orduko gizakia ez zekien, bere asmoz, antzez eta indarrez, hazkurria sorterazen.


Ba zituzten ordea beste lanbide batean zebiltzan lagunak ere: eskulan, antzelan eta antze jakintzan ari zirenak, alegia. Hauei esker erabiltzen zituzten tresna asko.

Lanabesak —batzuk behintzat— Azil aldikoen antzerakoak, batik bat hegal zanpatudun igeikiak eta muturtxoak eta marruxkatxo biribilak; beste batzuk, ordea, berriak, batez ere hiru muturdun harri tiki


landuak, harbilezko haizkorak eta harmokoak, marruxka biribil eta konkordun haundiak, koskadun ige-kiak, eta garrangadun eta uztarkideko orrikkak. Gai-nera hezurrezko eztenak, ziri xabalak, labanak e. a. Kutuntzat agian erabiltzen zituzten orduko bizilekue-tan ageri diren zenbait harrilore, harrizko zildai eta *Nassa* eta *Cardium* maskor zulodunak (ikus 46., 47. eta 48. irudiak).



46. ir.—Kanpiñaldiko harlangintza Santimamiñen: a, bizkar-kideko marraizkoa; b, c, d, e, beste marruxka motak; f, on-tzikideko marruxka; g, jokia; h, haiztoa; i, erdiko zulakaitza; j, k, bazter zulakaitzak.



47. ir.—Kanpiñaldiko harlangintza Santimamiñen eta Atxetan:
a, c, d, ... k, muturtxo landuak; b, Atxetako muturtxoa; l-u, San-
timamiñeko igei koskadunak.



48. Ir.—Kanpiñaldiko hezurlangintza: **a, b**, Santimamiñeko ziriak; **c**, Marizuloko ziria; **d, e**, Marizuloko muturtxo bi, basurdearen letagin azalez eginak; **f**, Santimamiñeko haizto ahoa, basurdearen letagin azalez eginak; **g, h**, Santimamiñeko eta Marizuloko gezi muturrak; **i, j, k**, Santimamiñeko maskor, harri eta *Cardium* zulodunak (tintil edo kutunak).

VI

NEOLITOS GARAIA

Aldaketak berriro Mesolitos garaiazen azkenaldian. Giroa ordea biguna orain ere: hala adierazten dauku behinik behin mangolinoen eta muskuiluen ugaltzeak eta *littorinen* guttitzeak. Jesukristo baino lau bat mila urte lehenago hasten da hemen garai hau.

Eskualde honetan ihiziak ere zuzenik dira lehen goen ondorengoak: zezenak, zaldiak, oreinak, basahuntzak, orkatzak, basakerrak, basurdeak, azeriak, basakatuak, etab. Hegaztiak ere Mesolitos garaikoen motakoak. Ostrak, mangolinoak, xirlak, muskuiluak eta lapak ugari itsasaldetako giza aztarnategietan; baina hortik harat, oreina eta basurdea gehientsu orduko sukaldeetan.

Garai hartako gizakia euskal kidekoa zen, noski: hala erakusten dauku Lumentxan zegoen buru hezurak.

Baina orduko euskaldunek bizikera berria asmatu edo jarrazti zuten. Horren argibiderik egokienak Mesolitos ondorengo mailak diren tokietan ageri zaizkigu: Santimamiñen, Atxetan, Lumentxan, Bolinkoban, Urtiagan, Ermittian, Urion, Moulignan, Isturitzen, etab.

Janen hondakinek aski agertzen daukute orduko lagunak ere ehizan asko zebiltzala (itsasaldekoak, gainera, arrantzan eta izpelki harrapaketan). Baina Lumentxan zegoen eihera harriak eta Santimamiñeko ardi hezurrek agian abeltzaintza eta nekazaritza adierazten daukute. Euskal Herrian gaurdaino ezagutu ditugun abelgorriak, bertan Neolitos Garaian gure mendietan ibili ziren betizuen ondorengoak dira. Berdin esan dezakegu zaldi eta ahuntzez ere.


Lagun batzuk, ordea, tresnagintzan ari ziren: harrizko lanabesak lantzen eta zurezkoak tankeratzen, bai eta lurrontziak egiten ere.

Lehengo lanabes motak oraindik jarrai: mutur eta igei bizkar malkartuak, Gravette-musturtxoak, orri koskadunak, garrangak, marruxkak eta haiztoak. Berriak ordea ota harrizko haizkur eta mailu leunduak, harmokoak, zorrotzarriak, orrikideko mutur xorrotzak eta mutur xabal isterlaukiak (*ikus* 50. irudia).

Hezurrezkoak ziren ezten asko eta jostorratzak.

Eihera harriak ere ba zituzten; harri bikoak, noski: azpikoa aurpegi zokoduna, eta gainekoa biribila.


Lurrontziak ere aurrerapen berriak ziren: batzuk saski ondoaren ikutuz mokokatuak; besteak, beha-



50. ir.—Neolitos garaiko harlangintza: a, b, Santimamiñeko harleunduzko haizkora eta mailua; c, labaina; d, zulakaitza; e, f, igeki koskadunak; g, h, marraizkoak; i, j, muturtxo bizkar zanpatudunak; k, tastaina; l, muturtxo alde batez landua; m, n, o, hiru eta lau aldeko suharritxo landuak; p, q, San Martin trikuharriko hiru aldekoak; r, s, San Martingo eta Txarratuko lau aldekoak; t, Santimamiñeko muturtxo ikutu zabalez landua.

tzez igurtziak; asko berriz, lerroz eta zilobilez apainduak (*ikus 51. irudia*).

Kutunak ziren, behar bada, maila honetan agertu ohi diren harriloreak eta harbil zulodunak; bai eta zenbait lurgorri kosko ere. Gai hauk Paleolitos garaitik, mendez mende, heldu dira. Gizakiari, batez ere bere bizibide edo hazkurribide soilari, eragiten zion zerbaiten ezagugarriak, dirudienez.



51. ir.—Neolitos garaiko lurrontzi etab.: a, Lumentxako esku-eihera; b, c, d, Santimamiñeko lurrontzikiak; e, Marizuloko gezi muturtxoa (hezurra); f, g, Santimamiñeko jostorratz eta eztena (hezurrak); h, Santimamiñeko lurregosizko tintila.

Guretzat ordea, gai honetan, ezagugarri argiagoak ziren labarrietako irudiak (Paleolitos garaikoak, alegia) aspaldi ahaztuak. Halaz ere, Neolitos garaian ba dira beste ezagugarri batzuk, adibidez: Lumentxako giza hezurren ondoan jarririk zegoen lurrontzia. Ohikunde hori erlijioarekin zerikusia duen sinesmen batetan hesoindua iritxi baitzaiku: lurbira honetako gure ibilaldi honekin ez dela amaitzen gure bizia. Gogoeta bat eta itxadopen bat doi doi hor da ageri.

Behar bada Euskal Herriko zenbait hilarri —trikuharri edo dolmen deritzenak, kasu— garai honetakoak izan litezke. Horietaz, ordea, geroago mintzatuko gara.

VII

MENASTA GARAIA

Bi mila eta bostehun urtez Jesukristo baino lehenagotik hasi ziren gure aurrekoak beren lanabes, kutun eta edergailuen gaitzat urraida erabiltzen: *Menasta garaia* zen.

Giroa oraingoaren antzekoa orduan ere; zerbait larmen ordea lurralde eta mendi maila bakoitza besteetatik: horregatik abereek, noiz behinka lekuz aldatuaz, urte garai guztietan janaria atzeman ahal zuten.

Nahiz eta nekazariak lurrari lotuak egon behar, abeltzaintzak ordea (batez ere orduan bezala elkarte gehiena horretan ari denean), lagunalde haundia herbestekoekin harremanetan jarri ohi du beti. Hortik heldu zen aldaketa asko, bai eta hezieraren berritze eta gailentze nabarmena ere Pirinioetako eskualde honetan.

ENEOLITOS HAROA.—Menasta garaiazen lehen atala *Eneolitos haroa* da (*aeneus* "urraida", *lithos* "harri") harri eta urraidaren aldia, noski.

Orduko giza aztarna asko dugu Euskal Herrian; bai eta giza hezurak ere. Hauei esker, ba dakigu euskal endako lagunak zebiltzala hemen. Hona nolako burua zuten: gehienak ez luze eta ez zabal, ia biribila (*mesokefaldunak*, alegia); baldoki irtenak; azpiko matrailhezurra hestua; kokotz mutur irtena; sudur luze eta zorrotza; lepondoko zuloaren aurreko ertza gorantz oso sartua (horregatik euskaldunak bere lepoa zutitzen duenean, kokotza bildu xamar jarri ohi du). Hauk dira orduko eta oraingo euskaldunen berezitasun batzuk.

Eneolitos Haroan gure lurralde honetan zebiltzan lagunak euskal endakoak zirela adierazten daukute Santimamiñen eta Urtiagan agertu ziren giza hezurrek; bai eta Euskal Herrian zehar ageri diren trikuharrietan bildutakoek ere.

Bizilekuak eta hiliarriak.—Gizaki hauk hedatuak zebiltzan eskualde honetan; dirudienez Pirinio inguru gehienez. Beheretako landetan, batez ere, horko harpeetan utzi zeuzkiguten azterren asko: Santimamiñen, Lumentxan, Urtiagan, Jentiletxeetan, Urion, Isturitzen etab. Harzuloen barruan, sarreratik hurbil, bizi ohi ziren: han ba zuten argia, han ba zuten behar hainbat aire berritze. Han zedukaten sutokia ere, lurrean sakondua, harrizko aulkiak biran biran.

Lurpetik harat ere ba zituzten aterpeak: Urbiako sarreran den *Elola* zelaitxoan, Santimamiñeko elizaño



52. ir.—Aizkomendi izeneko trikuharria Arabako Egilaz-en.

ondoan, Errioxa-Laguardia inguruko *Los Molinos* soroan, etab.

Mendietan zebiltzan asko, batez ere abeltzainak. Izentatu beharrekoak dira Gorbeia mendia, Betaio, Mazo, Armión, Ereza, Eskartxabel, Oiz, Kalamua, Gibijo, Arrato, Entzia, Urbasa, Andia, Ataun - Burunda, Altzania, Haizkorri, Elosua, Polpol, Aralar, Orin, Belabieta, Larrun, Hatxuri, Hartzamendi, Iuskadi, Urrixka, Berdaritz, Sorogain, Astakarri, Lindus, Atalosti, Abodi, Irati, Ahuski, etab. Ba dira beterrietan ere: Añes aldean, Errioxan, Kuartangon, Araba zelaian, Artaxonan, Haizkibelen, Landarbason, Urruñen, Askain-Sara inguruan, Mendibe aldean, etab.

Garai hartako aztarren aipagarriak, *mairietxe*, *trikuharri* edo *dolmenak* —hilarriak— nolanahiz ere. Ba dira larehun guttienez lehen aipatu ditugun leku horietan.


Mairietxe ez ezik ba ditu dolmenak beste izen batzuk ere Euskal Herrian, lekuan lekukoak: *mairu hilarri*, *jentil harri*, *armura*, *almora*, *armorkora*, *murko*, *morkuero*, *jentiletxe*, *tartaloetxe*, *sorginetxe*, *sepultura*, *kutxa* (hilarri soila) (*ikus 52. irudia*).

Landu gabeko harri mokorrez egina izaten da. Harri horiek, lurrean zutik jarriak, lauki edo lerro gehiagoko oroia mugatzen dute. Mokorren gain harri zabal bat edo beste, estalkitzat. Sortaldetik dadukan zutikako mokorra besteak baino motxagoa —apalagoa— izaten da, eta berorren eta estalkiaren artean hutsune bat agertzen da: hilotzak sartzeko ateka dirudi. Kutxa hau sarritan muino edo lur eta harri pila batez inguratua eta estalia egoten da.


Dolmen batzuek ateka aurrean sarbide bat dute: harluxe lerro birekin mugatua eta gainetik hartzabalez estalia —Aizkomendi, Sorgin txabola, Igartza, Artekosaro, Gurrupide—. Beste batzuk, berriz, kutxa bikoak dira: Jentil harri (Arraztarangoa), Harzabal eta Berdarizkoa (*ikus 53. irudia*).

Trikuharriaren luzera sortaldetik sartaldearantz doa. Beraz sarrera aurrez aurre sortaldeari dagokio. Barruan hilen soinak, luzeka etzanik, burua sartaldean eta oinak sortaldean direla.

Dirudienez, bizilekuetan edo hauen aldamenean eraiki ohi zituzten mairietxeak. Hauk gehienetan




53. Ir.—Trikuharrien lubai alboak: goian, Urbasako Artekosaron dagoen trikuharria (erdian hilotia: A, ateka) harri pillaz inguratua; behean, Perutxote izeneko Bizkalko trikuharria.




54. ir.—Eneolitos haroko harlangintza: a, b, c, d, e, Lumentxako labain ahoa, marraizko bi, igekitxo eta muturtxoa (bizkar zanpatudunak); f, g, i, Santimamiñeko gezi muturrak; j, Bolinkobako gezi muturra; h, Pagobakoitzakoa; k, Santimamiñeko karraskailua; l, Santimamiñeko igeki koskaduna; m, n, Lumentxako eta Bolinkobako lau aldedun gezi ahoak; o, Dimako haizkora leguna (oso ttikitua).

larreki asko izaten den tokietan daude: larre eta luondo haundien barnean edo sarreran, harrate inguruan, ibar batetik besterako bideak elkartzen diren tokietan, lepaketan, etab.




55. ir.—Eneolitos haroko lanabes eta tresnakiak: **a**, Ginerradiko urraida haizkora; **b**, Santimamiñeko urraida ziria, adarrezko girtenean; **c**, Santimamiñeko urraida eztena; **d**, **e**, **f**, **g**, **h**, **i**, **j**, **k**, **m**, **n**, **o**, Santimamiñeko ontzi zatiak, ukitze eta lerroz apainduak.

Tresnagintza.—Orduko janzkerez ezin dezakegu ezer garbirik esan. Jostorratzek, eztenek, leungailuek eta zulakaitzek gai horretara daramate gure gogoeta: narruarekin edo eta ilariarekin orduko lagunak ari zirela jantziak —soinekoak, oinetakoak, atorrak— egiten, alegia.




56. ir.—Burdinori aldiko harri tresnak: a, Giñerradiko haizko-
ra; b, Santimamiñeko suharritzko muturtxo ikutuduna; c, Lu-
mentxako gezi muturra; d, Kalamuakoa; e, f, Atxuriko igei
bizkar zanpatudunak; g, h, Atxuriko zulakaitza eta garranga
(suharrizkoak); i, Goikolauko xirrikatxoa.

Langai asko lehen garaietakoan antzekoak ziren. Ba ziren ordea egite berria zutenak ere: gehienak suharrizkoak —gezi mutur joki antzekoak, orrikide-koak eta azken aldean, hegaldunak; Gravette mutur-txoak, leungaiak, zulagailuak, malerak edo karraskai-



57. ir.—Burdinori aldiko menasta tresnak: a, Zabalaizko haizkora; b, Uelogueeneko eztena; c, d, Lamikelako gezi muturra eta esku uztaiia; e, Aralar Obionetako aztamakil muturra.

luak, marruxkak, labanak edo haiztoak, otarrizko haizkora xabal leunduak (azken aldean, Balenkalekuko haizkora begiduna), hargorrizko mailuak eta eihera harriak, harriloreak, ikatz edo azabatxe kutunak, alabastrozkoak, arbelezkoak eta lurrezkoak—; batzuk urraidazkoak, batez ere haizkorak, eztenak, gezi muturrak, beranak, eraztunak, eskumuturrekoak, etab (*ikus 54., 55., 56. eta 57. irudiak*).



58. ir.—Eneolitos haroko tresnak: a, Urbia-Pagobakoitzan dagoen trikuharriko lurrontzia (joalekidekoa); b, Oiduegiko gezi muturra (suharrizkoa); c, Aralar Ueloguenekoa.

Lurrontzietan ere ba dira mota asko: batzuk azal leuna dutenak; besteak zulotxodunak (hatzamarrez, xirlez eta eztenez eginak), zulo lerroz apainduak, adarkideko heldulekuz osatuak. Ondoren heldu ziren hildoz, murkoz eta hatzamarraz apaindutako eta xi-

linkideko lurrontziak. Azkenik, zehar mehar eginiko lerroz eta koroikideko edergailuz osatutako lurrontziak (*ikus 58. irudia*).

Bizikera.—Urraida garaiko bizileku eta hilaiaak dauden lurraldeetan daduzkagu gaurko saroi, larre eta luondo gehienak. Hori ikus dezakegu Gibijo mendian, Arraton, Gorbeian, Erezan, Entzian, Urbasan, Haizkorrin, Pospolen, Ataun, Burundan, Aralarren, Haizkibelen, Larrunen, Hatxurin, Iuskadin, Iratin, Abodin, Lindusen, etab.

Abeltzaintza baitzen orduko gure aurrekoen zereginik haundiena, aipatu ditugun leku horiei begira asma ditzakegu abeltzainak urtarotetan tokiz aldatzera behartuak zeudela. Biraka horretan zebiltzan beren garaietan. Beste askok, ordea, ba zuten beste zereginik: Santimamiñeko, Lumentxako eta Urtiagako ihizi hezurrek ongi derakusgute artean, toki batzuetan bederen, abeltzaintza baino nagusiago zela ehiza. Gainera alderdi batzuetan —ibar eta beterrietako landetan— nekazaritza zerbait hedatua zegoen: orduko haitzurrek, eihera harriek eta nabarrek hori adierazten daukute noski.

Hizkuntza.—Oraingo lanabes batzuen izenak dira *haizkora*, *haitzur*, *haizto*, *zulakaitz* eta *orratz*. Lanabes horik haitzezkoak edo harrizkoak zirèn garaian ezarritako izenak, dirudienez: Eneolitos garaikoak edo agian lehenagokoak.

Hona hemen beste izen batzuk: *zezen*, *behi*, *idi*, *aker*, *ahuntz*, *ardi*, *zerri*, *zaldi*, *zakur* eta abere horien hazkera mailak izendatzeko erabiltzen ditugun hitzak.

Izen hauek aski adierazten daukute indoeuroparren eragintzaz sortuak ez baina lehenagotik hemen zebiltzanak direla. Beraz euskararen zubila hemen zebilan.

Gizabidea eta erlijioa.—Eneolitos garaiko xehekin aski adierazten daukute orduko erlijio eta gizabidea hezieraren aldi hartako beste gaiaz zerbait ikutuak zebiltzala. Ez baitziren urrik etorriak giroaren eta ikusbiraren aldaketak, luondoen hedatzeak, bizilekuen barreiatzeak, abeltzainen joan etorriak edo ibilaldi luzeak, bizibide berriak, lurrontzien eta lanabes berezien antze-jakintzak, urraida eta beronen erabiltzetak, inguruetak herrien eta hezieren bultzetak etab.


Hona hemen ezagugarriak. Hilarriak, batez ere —trikuharriak edo mairietxeak, alegia— lauki eta zizku gehiagoko oroidunak ziren; batzuk soilak, besteak *sortalde* bide estali bana dutenak. Berauen barnean, berriz, hildakoak, zerraldo ipiniak, buruak sartaldeantz eta oinak sortaldeantz dituztela, ehortziak; denak, ordea, izkiluz, hartxabalezko, azabatxezko, alabastrozko eta hezurrezko kutunez, hartzen, zaldien eta basurdeen hagin zulodunez eta harrilorez eta lurgorri koskoz babestuak; soinean, berriz, emakume irudiak hezurrez eginak —behar bada jainkoizunak— etab. Horiekin dabilta sortaldean edo ataka aurrean suak piztea eta lurrontzietan opariak ipintzea ere. Ez da hori ordea hemengo bizibide soilak behartuaz zerabilaten gogoeta, hil ondoko beste bizitza batez zerabilatena baizik. Hazkurri bilketari eta antze-jakintzari eragiten dion norbaiten-

gan sinestea eta itxadotea, alegia. Gogoeta hori da orduko erlijioaren eta gizabidearen oinharria eta bilbea, lehenagokoena bezalaxe, nahiz eta beste aldian aldiko ezagugarri edo irudikurrei lotuak ibili.

Aipatu ditugun sinesmen eta ohikunde horiek ba zuten, dirudienez, eguzkiarekin zer ikusia —hilarrien atekak sortalderantz begira eta hilotzak eguzki bidearen lerroan ehorztea—, bai eta emakumezko jainkoizunen batekin ere, San Martingo hilarriak erakusten daukunez behintzat. Lehengo erlijioaren muina, ordea, gogoetan zetzan, noski (harriloreak, ihizi haginak batez ere eta emakume irudiak agian); baina indoeuroparren irudiak eta ikusbirako zenbait izar, indar eta izaki muin horren ezagugarritzat edo jainkotzat hartuaz.

Izartegiaren edo beronen argiaren izentzat erabili diren *Ost*, *Ortz*, *Urtzi* eta *Egu*, indoeuroparrek horrexetarako zerabiltzaten izenen ibilaldi berbera egin dute Euskal Herrian: izartegia, eguzkia, ihusturia, hodeia eta oinaztarria adierazten, alegia: Herrialde haiek izartegia eta beste izaki asko jainkotzat zeduzkaten eta berari astearen egun bat —osteguna— opatu zioten (*); euskaldunek, aldiz, egun

(*) Latinez, esate baterako, izartegiko jainkoa *Jupiter* zen eta beronen omenez ostegunari *jovis dies* jarri zioten, alegia, "Jupiterren eguna"; hortik espainolez *jueves* eta frantsesezko *jeudi*. Germaniarren artean, aldiz, *Thor* zen zeruko jainko kidea eta beronen izena oraindik ikus daiteke ingelesezko *Thursday* delakoan, hots, "osteguna" edo "Thor-en eguna" esan nahi duenean. Gauza bera gertatzen da euskaraz: ostegun = "Ost-en eguna". *Ost* ain-



59. ir.—Burdinori aldiko giza irudi eta beste, **Solacueva** izeneko harpean, labarrietan eginak. Batzuk hilobien ondoan edo gainean daude.

bera eskaini zioten. Indoeuroparren erlijioak eraginez sartuak, noski, ditugu Euskal Herrian izartegiari buruz hedatuak dabiltzan sinesmen eta esaerak.

BURDINORI ALDIA EDO TUPIN HAROA.—Eneolitos haroaren ondoren —1.200 urtez Jesukristo baino lehen— hasi ziren hedatzen alderdi hauetan burdino-rizko edo tupinkizko tresnak.

tzinako jainko horren izena izan zela dudatzeko arrazoirik ez dago. XII mendeko Aimery Picaud frantses peleginuaren testigantza (Deum vocant *Urcia*) asko ez balitz ere, hortxe ditugu gaurko euskaraz *ostots* "trumoi", *ostadar*, *ostargi*, *oskorri* "zeru gorri", *oskarbi* "zeru garbi", *ostondo* "izartegi", eta agian Bizkaiko Txori Herriko *ustruku* "ostargi", "ostadar" esanguraz, guztietan *Ost* sustraia agertzen delarik. (Editorialaren oharra).

Gizartea eta heziera lehengoen kidekoak gehientsu. Tresna batzuk, ordea, tupinkizkoak, lurrontzi bereziak eta kutun edo edergailu berriak edo tankera berrikoak.


Aldi hartako aztarrenak Solacuevan, Gobaederan, Los Husosen, Lamikelan, Santimamiñen, Lumentxan, Atxetan, Abittagan, Goikolaun, Oialkoban, Kobeagan, Hiruzubietan, Kutxiñobason, Zabalaizen, Orkatzategin, Limuritan, Pikanditan, Castellar-en, Esterlocq-en, Harixtoin, Isturitzen eta Euskal Herriko ezin aipa ahala trikuharritan agertu dira (*ikus* 59. *irudia*).

Aipatu ditugun toki horietan bizi ziren aldi hartako lagunak; bai eta harpeetatik harat, xaboletan ere.

Lanabes asko oraindik harriz eginak, lehengoen tankerakoak: haizkorak, gezi mutur hegalekoak, labanak, igeke landuak (ikutuz), etab. Beste batzuk, berriz, burdinoriz eginak: haizkoltxabalak lehenik, gero hegaleko makurrak, koskatuak eta zulodunak; gezi mutur hegaltxodunak edo gabeak, esku-uztaiak, eztenak, orratzak, belarritakoak, etab. Hezurrezko nahiz harrizko tintil zulatuak ugari; kutunak, noski.

Lurrontziak, gehientsu hilobietan jarriak (oparietarako): hondoak xabal dutenak dira batzuk, konkorra besteak; txali antzekoak asko, bulunbakidekoak ere bai; adartxoak helduleku dituztenak dira batzuk; goitik beherako hildoz apainduak beste zenbait.

Hil ondoren.—Hildakoaren soina osorik hobian jartzen zuten. Harpea zen askotan hobia, gehiagotan agian trikuharria. Ez zuten hila lurpean sartzen; zoru




60. ir.—Burdinaroko etxe eta tresnak Nafarroako Cortes eta Etxaurin: a, etxe oroia (Es, eskaratza; Bi, bizilekua; Su, suto-koa; Az, azkurritegia; lar, jarlekua); b, lurrontzia; c, sualboa (lur egosizkoa); d, orratza; e, apatza (zurezkoa), bertan ager-
tutako zatien bidez eratua (Maluquer de Motes: Cortes de Navarra. 1954); f, g, h, Etxauriko golde mutur, igitai eta aztamakila.

gainean ipini ohi zuten bere opari, kutun, izkilu eta beste tresnekin.

Aldi honetan ba zen beste ohitura bat ere: hilak erre eta beraien errautsak, soilik edo eta lurrontzian gorderik, hobian jarri, beren kutunekin. Horrela ageri da Oialkoban, Goikolaun, Lezetxen, Pikanditan, Isturitzen eta Harixtoin, Los Husosen, Gobaederran, Salbaterrabiden, etab.


Erlijioa.—Hilobietan ageri zaizkigu gai honekin zer ikusia duten ezagugarri batzuk. Ez daukute ordea lehen ez zen gauza berririk erakusten, hilen gorpuak inoiz erretzea baizik. Ohitura honek aski adierazten dauku erlijioan edo beronen hauzoan aldaketa zebilala. Baina hilaren ondoan edo beraren errautsetan jartzen zituzten gauzak urraida harokoen antzekoak ziren: harrizko, urraidazko eta tupinkizko izkiluak, harrizko eta hezurrezko tintilak, basurdearen eta hartzaren letagin zulatuak (kutunak), lurrontziak, etab.

BURDIN HAROA.—Jesukristo baino 800 urtez lehenagotik euskaldunak hasi ziren burdinazko tresnak egiten eta erabiltzen. Garai hartako aztarrenak Euskal Herriko toki askotan agertu dira: Erriberan (Val-




61. ir.—Sagastigorriko lurrontzia.

tierra, Cortes, Castejón de Arguedas) (*ikus 60. irudia*), Etxaurin, Artaxona - Adorren, Urbiolan, Errioxan (La Hoya); Arabako Iruinan, Txarratun, Obenkunen, Salbaterrabiden, Kurutzemendin, Surbin, Urratxen; Bizkaiko Nabarriz-Arrolan, Sagastigorrin (*ikus 61. irudia*), Goikolaun, Santimamiñen



62. Ir.—Menditti izeneko harrespil edo mairubaratzearen oroi eta erdiz erdizko lubai ertza (Bidarraiko mendian). Erdian hartxabal bat, errauts askaren estalkia.

eta El Bortalen; Gipuzkoako Intxurren; Lapurdiko Urion; Nafarroa Behereko Harixtoin. Gainera garai bereko harrespil, mairubaratze edo kromlech izeneko ehunka hilobi ikus ditzakegu Euskal Herriko mendi askotan (*ikus 62. eta 63. irudiak*).



63. ir.—Atalostiko harrespil edo **kromlech** baten oroi irudia, hoguei harriz egina; sei metro, erdiz erdi, bere neurria. Lindus mendiaren alde batean dago harrespil hau.

Bizilekuak.—Euskaldunek, toki batzuetan elkar eginda, hiriak eraiki zituzten, batez ere Erriberan eta Errioxan, Arabako Iruinan, Salbatierrabiden, Surbin eta tontorretako Kurutzemendin, Urratzen, Nabarrizko Arrolan eta Intxurren. Etxe pilak, bakoi-tzak lauki luzeko hesoina, harriz eta lur zotalez egini-ko etxe hesiak, egurrezko zurajea. Egite bera Iruinako, Kurutzemendiko, Salbatierrabideko eta Intxurreko etxeek. Urratzen, ordea, ba dira birako hesoina dutenak ere. Iruinako eta Salbatierrabideko etxeetan ba dira zoruan ziloak ere, gauzak (aleak?) gordetzeko.

Harpeetan ere ba zituzten bizilekuak, batez ere Solacuevan, Obenkunen, Txarratun, Santimamiñen, Sagastigorrin, El Bortalen, Goikolaun, Urion eta Harixtoin. Bai eta lur gainean ere, han hemen sakabana-
natuak, bizileku asko —baratze edo harrespilek hala adierazten daukute—, bereziki Askonobi mendiko Elortan, Iratin, Okaben, Lindusen, Atalostin, Zahon, Baiguran, Iuskadin, Hartzamendin, Ezurretan, Maillarretan, Goizamendin, Ibainetan, Gorostiarrian, Mandalen, Pittarre-n, Leraten, Oiartzungo mendietan, Elazmunon, Olegin, Aranon, Unamunon, Etzelan, Oentzunen, Altxistan, Adarran, Erezan, Betaion, etab.

Bizikera.—Nekazaritza toki zelai eta biguinetan hedatua zen, nahiz eta abeltzaintzaren mendean gehientsu. Galaleek eta eihera harriek, Cortesen, La Hoyan eta Urreatxen aurkituek, hala derakuskigute; bai eta Etxauriko eta La Hoyako golde muturrek eta igitaiek ere.

Bestalde, mairubaratzeek edo harrespilek eta berauen lekuek eta egoerek abeltzaintza oso hedatua zegoela erakusten daukute, bai eta abeltzainak maiz larre aldaketan eta ibilaldi luzeetan zebiltzala ere.

Ba ziren beste bizibide batzuk ere: ehuleak, ontzigileak, meatzariak, olagizonak etab.

Tresnagintza.—Zurezko apatz eta lurrezko eltze eta txaliak Cortesen, Salbatierrabiden, Kurutzemendin, Harixtoin, etab., ba dira garai hartako bizilekuetan.

Burdinazko tresnak ere agertzen dira, batez ere labanak, ezpata adardunak, eztenak eta gezi mutu-

rrak, golde muturrak, zaldien ahokoak, igitaiak, aihotzak eta gerriko zildaiak. Bai eta burdinorizko eraztun, orratz galezkorrak (katakorotzak), jostorrazak, hezurrezko ezten, tintil eta sasijainkoen irudiak ere.

Gizabidea.—Hezieraren hesoina susma dezakegu aldi hartako hilarrietan, hilen hautsontzietan, horien toki berezietan eta horiekin ageri diren kutun eta babesgailuetan. Bizikera soilari eta antze-jakintzari eragiten dion zerbait ageri da hor ere. Hildakoak erre eta haien hautsak ontzietan gordetzeko ohikundea alde guztietan sartu zen, nahiz eta ez lagun guztientzat.

Euskal Herrian zehar, lurralde batzuetan batez ere —Zuberoako, Nafarroako eta Lapurdiko bortuetan, Gipuzkoako sortaldean eta Bizkaiko sartaldean— mairubaratze edo harrespil asko (kromlec'h) ageri dira: arlo biribilak, alegia, harluzez inguratuak eta erdian harrizko kutxatila edo lurrontzi bana —hilen hautsak gordetzeko— dutenak (*ikus 62. irudia*).


Beste toki batzuetan hildakoen hautsak lehena-goko trikuharrietan edo beraien inguruan gordetzen zituzten; bai eta harpeetan ere, lurrontziak, hilen hautsez beterik, izkutuko zokoetan kokatuz.

Heriotzak ez zuela gizakiaren bizia arrunt galtzen edo ezerezten eta beste bizikera baten jabe zelazko sinesmena ba zebilan hor ere.

Lehen, hildakoa bere hobian jartzen zuten; orain ordea errauts bihurtzen: gizabidearen inguru aldaketa egin zutela dirudi. Erlijioan zerbait, lehengo haroetan

ezagutu ez zutena, sortu zen. Haurtzaroan hiltzen zirenen soinak ordea beren etxeko zolan ehorzten zituzten orain ere.

Zenbait lekutan, etxeko harresiak, barne aldetik, pinturaz apaintzen zituzten; inoiz bai eta irudiz ere: Nafarroako Cortesen, esaterako. Han, etxe batzuetan agertu ziren harrizko eta lurgogortuzko irudi batzuk: sasijainkoen irudiak zituztela uste dugu. Ez dakigu ordea zer eginbide berezi zuten izaki horiek, hala ere. Kutun eta babesgarritzat zerabiltzaten, dirudienez, eraztun, tintil eta txirrikatxo, burdinoriz, burdinaz edo hezurrez eginikoak.



64. Ir.—Mikeldi'ko irelúa.

Berdin esanen dugu Mikeldiko idolu ero irluagaz: betizu edo orrelako ihizi baten egitea du. Arrian landua, orain Bilbo'ko "Museo historico" izenekoan dago; lehen ordea Durango inguruan. Burdin-harokoa, dirudienez; bainan berak oroierazten daukuna auxe: lurraren irudikurra dala hor, eguzkia alde batetik eta hilargia bestetik bere altzoan dituala. Uste hori ote iduri orren egileak? Nork jakin! (64. *irudia*).

VIII

BURDIN HAROAREN AZKENALDIAN

Euskal Herriko gizakiak mendez mende egin duen ibilaldian Lehen Paleolitosez gero ez da hemen, oraingo euskal lurrotan behintzat, kanpotiko herri berririk bertakotzat jarri. Lehengoak iraun du, nahiz eta bere hezieran aldaketa ugari egin. Eraberritze agirienak beste herriekiko ikutuetatik heldu ziren, gaur amerikarren eta japonдарren eraginez tresna eta lanbide asko sartu zaizkigun bezala.

Azkenaldietan indoeuroparrekin zer ikusi haundia izan zuten euskaldunek; burdin haroan, batez ere, kelta herriekin: burdinoria, burdina, hilak erretzea, harrespil hobiak, etab., ez dira Euskal Herrian sortuak, herbestetik ekarriak baizik. Herri haien aztarrenek euskal hezieran ere gaurdaino iraun dute, izen hauek, adibidez, duten mamiaz behintzat: *ostegun*, *oinaztarri*, *Donibane eguneko sua*, *gabonzuzi*, *eguberri*, *gerixeti*.

Jesukristo baino 200 urtez lehenago beste herri batek hasi zuen hemen bere eragintza: erromatarrak, alegia. Garai hartan Euskal Herria noraino hedatua zegoen, Estrabonen, Pomponio Melaren, Senecaren eta beste idazle batzuen bidez eta herrien ohikundeei begira susma dezakegu: Asturtarren aldetik Garona hibaira arteko lurraldeak —Mendi Pirinio eta ibarrak ardian— bere muga barruan zituen. Beraz, asturtarrak, kantauriarrak, baskoinak, barduliarrak, autrigoiak, karistiarrak, ilergetarrak, zerretarrak, jakatarrak eta akitaniarrak euskaldun zirela dirudi eta egiaz hala zirela esatea da bidezko, beste eritzi bat, hobeki oinharritua, agertzen ez zaikun arte behintzat. Lehen Paleolitos Haroaz gero ez zuen aldaketa haundirik lurralde honek erabili. Geroztik ordea zedarriak hurbilduz eta Euskal Herria ttikituz doaz.

Aldaketa horretan erromatarrak zebiltzan nagusi: aldi luzean euskaldunekin harreman asko erabili baitzuten. Seirehun urtean, beren agintarien eta hezierraren indarrez, arestian aipatu ditugun herri gehienak berendu zituzten.

Orduko aztarren eta idazkien bidez ikasi dugu burdin haroaren azkenaldian eta erromatarren garaian euskaldunek gehien abeltzaintza zutela beren bizibiderik nagusia. Toki batzuetan ordea —herri beheeretan bereziki—, nekazaritza ere ba zuten, eta gainera, meatzaritza, olagintza, ehiza, arrantza eta eskulangintza asko.

Ordutik hasten dira hemen, dirudienez, herri lurren banatzea eta bakarjabeaketa: *fundi* izeneko

lurraldeak jauntxoen eskuetan eta langile dohakabe asko hauen menean. Etxeak eta lurrak herriarenak baitziren lehen; aurrerantzean, ordea, lurrak eta etxeak bakar-lagunen eskuetarantz zihoazen. *Tegula* edo teila —etxe estaliaren gaia— etxearen lekukoz zen eta bakarjabetzearen ezagugarria.

Toki askotan, bilketa hutsaren bidez, hazkurria sortzen zuten eta gainetiko lekuetan ere bilketak bizibidea laguntzen eta indartzen zuen.

Ale bilketak ba zuen bere garrantzia: urte garai luzean ezkurra (haritzaren, ametzaren eta artearena) baitzuten janaritzat erabiltzen. Ale hori idortzen zuten, apurtzen, ehotzen eta haren irinarekin ogia egiten. Ala adierazten dauku Estrabonek bere hirugarren liburuan.

Ehiztariak ere ba zebiltzala beren beharrean derakuskigu Lizarrara inguruko hilarri batek dadukan irudiak: han ageri dira oreinkideko hiru ihizi eta, erdian, ihiztaria. Sepx izeneko akitanian herrian agertu zuten harrizko hilobi bat: zakur antzeko irudia eta basurdearena alboan marraztuak zituen, ehiza adierazteko eginak, gure ustez.

Abere hazkuntza zen beste egintza bat. Orduko idazleek aipatu ohi zituzten, hemengo aberetzat, ahuntzak, behiak, zaldiak, akerrak eta zerriak. Aldi hartako bizilekuetan ageri diren hondakinen artean ba dira, ordea, hartzen, zakurren, ardien, oreinen, orkatzen eta basurdeen hezurak ere.

Salerosketa gehiena ordainetan egiten zuten, nos-

ki; ordain lekuko zilar puskak ere erabiltzen zituztela dio Estrabonek.

Nekazaritza edo lurlantzea ere aurrerantz zihoan Euskal Herrian, Akitania aldean eta baskoinen hegoaldeko lurretan batez ere. Hala diote Salustiok eta Estrabonek. Berdin erakusten daukute arkeologi xehekinek: galale eta garagar ale asko, orduko ontzietan gordeak, gaurdaino iritxi zaizkigu; bai eta mahats mordoan irudiak ere, harrietan landuak.

Bizilekuak edo etxeak oraingo artzain etxolen tankerakoak zituzten: oroia luzangan, xapitola sarrean, sukalde etzangua erdian eta goinubea atzean. Horrela ageri da Cortesen, batez ere. Beste leku batzuetan ba liteke harrespilez eginak izatea, Urrea-txen behintzat.

Itsasoan edo uretan ibiltzeko larruzko ontziak zituzten lehenik; gero hasi ziren zurezkoak egiten: sunbil hustu bat, ontzi bat.

Soinekoak.—Emakumeak belarrez eginiko oiha-lez janzen omen ziren, Estrabonek dioenez; gizonak, berriz, soineko beltza erabiltzen eta berarekin ohean etzaten. Ohea hostoz, belarrez eta lastoz egina omen zen.

Ontziak, zurezkoak gehienbat, noski; ba ziren lurrezkoak ere ausartki: xali, opor, etab. Baita burdinezkoak ere (burruntzaliak).

Ba zituzten gudurako eta ehizerako izkiluak ere, batik bat babeskiak, azkonak, aztamakilak, etab.

Edenak edo pozoiak ere ezagunak ziren: irribelarrren edo hauen antzekoen bidez egiten zituztela, edo

eta hagin edo xubiletik sorteraizten zutela diosku arestian aipatu dugun idazleak.

Elkargoa.—Euskaldunek ba zituzten etxeak eta herriak; eta elkar hartzen zuten, beren eskubide eta lurak gorderazi behar zituztenean. Hala diote orduko idazle batzuek; bai eta beste hau ere: ezkonlagun bakar batetakoak zirela; alabak —ez ordea semeak— izaten zirela etxean ondorioko, amaren sorlekua izaten zela etxekoen bizilekua eta etxe ondasunak amaren lerroan, zihoazela gizaldiz gizaldi; emakumeak lurlantzeari emanak zirela eta gizonak ehizari eta guduko eginkizunei; hala eta guzti ere, aita etxean izen haundia zuela eta haren esanak eta aginteak begirunez onhartuak izan ohi zirela; etxera ikusgarri bat zetorkielarik —ardo edo beste ezgauza bat—, beren ahaideekin elkaturik zutela, etab.

Elkartean ez ziren lagun guztiak berdin bakoitzaren adinari eta duintasunari begira batzarreak eta elkargoak eratzen zituzten.

Bere gaiztakeriengatik bat hiltzeko ematen zutelarik, malkorrean behera amiltzen zuten: guraso hiltzailea, berriz, beren lurraldearen mugaz landa harrikatzen zutela dio Estrabonek. Ohikunde honek aski erakusten dauku elkarteek —adreriak, esate baterako— ba zituztela beren lurralde izentatuak eta mugatuak.

Herrialde nagusiak bizpahiru mailatan eratuak zeuden; ez dakigu ordea maila edo sail bakoitzak zer eskubide eta eginkizun zituen bere.

Beren artean jolas, joko eta burruka asko, ihar-kuntzat, egin ohi zituzten: jauzika, zaldiz, lasterka eta izkiluz jantzita.

Xilibitu hotsen neurrian jauzika, soina makurtuaz eta zutituaz, yostatzen ziren, batez ere gauaz ilargi betean, hauzoak bildurik dantza egiten zutela.

Hizkuntza.—Euskaldunon gaurko lurralde honetan zebiltzan bizilagunak euskaraz mintzo zirela ezin uka daiteke.

Akitaniarren lurraldean euskal izen asko orduko hilarri eta aldare-harrietan idatzirik ageri dira (*Cison, sembe, bihox, nescato, andere...*) (1). Han ere eus-kara zerabilatela esan dezakegu. Zerretar, Ilergete eta Jakatarren lurraldeko hizkerak eta tokizenek gauza bera erakusten daukute, hizkuntzalarien ustez. Bestalde, asturtarretatik hasirik, kantauritarrek eta bas-koinek hizkuntza bat zutela aski adierazten daukute garai hartako lehen aipatu ditugun idazleek, alegia, Estrabonek, Pomponio Melak, Caesar-ek eta Senecak.

Gizabidea eta erlijioa.—Euskal Herrian ba ziren aldi hartan gizakiari eta ikusbira guztiari eragiten dion orobira adierazten zuten gogaiera eta sinesmenak. Adierazte bakarra ez, bai eta orobira horren ezagugarritzat gauza asko izentatu eta jainkozkotzat hartu ere. Hala eguzkia, ilargia, zenbait iturri, zuhaitz, harri eta mendi. Hauen izenak hilarrietan eta aldareetan idatziak daude. Hona hemen batzuk: Ka-

(1) *Ikus* Julien Sacaze, *Inscriptions antiques des Pyrénées*. Toulouse, 1892.

brianako *Uvarna*, Laguardiako *Useae*, Artzeniegako *Sandao Vimu...mburo*, Alegi Dulanziko *Tullonio*, Angostinako *Baelisto*, Barbaringo *Selatsa*, Lerateko *Losa*, Argiñarizko *Loxa*, Uxueko *Lacubegi*, Oiartzun-Anderregiko *Ulbelteso*; Mendi Pirinio eta beronen iparraldean zehar, berriz, Hasparrengo *Genius pagi* (Baserriko iratxo) eta Aterratzeko *Herauscorritsehe* eta, sortaldean, Aran ibarreko *Lex* eta *Ilurberrixo*; Akitanian eskualdean, Lourongo *Arixo*, Mondilhango *Iluro*, Garingo *Iscitto*, Luchongo *Ilixo* eta *Alardoss*, St. Aventingo *Aherbelste*, Montmajouko *Baicorrixo*, Bassiouéko *Basceiandoss*, Gar mendiondoko *Garre*, Gaud-eko *Garri*, *Alar* eta *Alardost*, St. Pée-d'Ardet-eko *Idiatte*, St. Béat-eko *Erriappo*, Burgalais-eko *As-toilun*, Gaut-eko *Ilun*; Eup-eko *Ele*, Siradango *Aereda*, Ourdeko *Artehe*, Arbasko *Xuban*, Adelaingo *Edelat*, Hautaget-eko *Erge*, Caumont-eko *Ande*, Ardiège-ko *Leheren*, Gourdango *Baios* eta *Baeserte*, Toulouseko *Erdit*, Alango *Labe*, *Lurgorr*, etab...

Horra izen batzuk: aldi hartako euskaldunek jainkotzat zeduzkaten izakien izenak, batez ere ikusbi-rako zenbait gauzarenak —eguzkia, ilargia, izarra— eta lurberako zenbait mendi, iturri, zuhaitz eta indarrenak.

Aldare eta hilarri hauetan ba dira gauza horik —jainko-ustekoak, dirudienek— adieraztearren egin-dako irudiak: eguzkiarenak, ilargiarenak eta inoiz izarrenak. Eguzkiaren irudiak behar bada *Lex*, Montserié, Bramevaque eta St. Bertrand-eko aldareetan ageri diren laburu edo swastikak.

Ba dira, dirudienez, irel adierazgarritzat egin-dako ihizien irudiak ere zenbait aldare eta hilarritan: Uxueko aldare harriak ba du zezen buru baten irudia; Iberokoak bi zezen bururenak; Okarizkoak, zezen batena; Gaud-ekoak berdin; Okariz-en, orein batena; Iberokoak, zaldiarena; Gourdango Basert-en aldarean, basurde bat; St. Sepx-ekoan beste bat.

Zuhaitzak ere jainkotzat hartu zituzten toki batzuetan. Hala ageri da Arbas hibai ondoan eta herrian azaldu ziren hiru aldare harritan: *sexs arbori deo*. Bai eta Saint Bertrand inguruan agertu ziren *Fagus* "pago" jainkoari eskainitako zazpi aldaretan ere. Behar bada lehen aipatu ditugun *Arixo* eta *Artebe* ere haritz eta arte jainkoen izenak ziren.

Nonnahi beraz jainko izeneko zerbait edo norbait. Irelukeria edo "animismo" delakoari dagozkion sinesmenak oso hedatuak ziren Euskal Herrian eta arras loturik zeduzkaten euskaldunen gogamenak. Halaz ere lehenagoko haroetan susmatu dugun erlijioaren muina zebilan hor: giza galde bereziari dagozkion erantzuerak, alegia, eta giza hezieraren hesoia, gizakiari eragiten dion orobiran gogorki oinharritua eta indartua, nahiz eta eraskin ugariz herdoildua eta astundua egon.

AZKEN-ITZAK

Hezieraren eta beronen ikusguneen ibilaldi eta aldakuntzak ageri dira, batzuetan argi eta besteetan ilun, Euskal Herriko lehen gizakien aztarnetan. Bai

eta euskal ethnia nola eratzen ari den ere. Hona hemen, laburki, xehetasun batzuk:

1. *Bizimaina* bilketan hesoindua agertzen zaiku lehenen: ale bilketa, ehiza eta tresnagintza; gero janaren sorterazketa, lurlantzearen eta abeltzaintzaren bidez; geroago berriz, bai meatzaritza eta olagintza ere.
2. *Tresnagintza*: harri tresnak lehenen; ondoren harrizkoak eta hezurrezkoak; gero menastazkoak: urraida, burdinori eta, azkenik, burdinazkoak.
3. *Bizilekua*: harpeak aldi luzean; gero etxolak; ondoren etxeak (olaetxe, harretxe...).
4. *Gizartea*: etxea eta etxearen gainetik hauzunea (ehiztarien etxe elkartea), agian haran edo ibarreko lagunarteak; gero herriak eta herrialdeak.
5. *Hizkuntza*: irudikurrak ditugu gai honetan lehenen ageri zaizkigun ezagugarriak, batez ere Goi Paleolitos Haroko ihizi irudiak, burdinori garaiko giza irudiak; euskararen azterrenak (tresnen izenak); ondoren, euskara, indoeuoparren hizkuntzaz ikutua; batez ere —azken aldean— latinak zerbait kutsatua.
6. *Gizabidea* erlijioan hesoindua. Hona gai honen garbitasunak: Paleolitos garaiko berun, fosil, lurgorri eta hagin landuak; harlore, maskor, turritella eta littorina zulatuak; hilak ehortzea eta harpectako labarri ezkutuenak ihizien irudiz apaintzea; geroago harri eta izpelki tintilak; Neolitos garaiko hilarri eta hilobiak; hilobien eta hauetan ehortzita-koen jarrera; hauen babesgarri eta apaingarriak; Sa-

martin trikuharriko jainko irudiak, hilarriak, kutunak eta harloreak; Burdinori aldiko ikatz tintilak, eta harrizkoak, eta hilen irudiak harpeetan marraztea; Burdin haroko hilen erretzea eta beraien errautsak ehorztea edo eta lurrontzietan sartu eta harpeetan gordetzea, etab. Hauk dira Euskal Herriko lehen gizakien zenbait sineste eta gogoeten ezagugarriak eta beraiei lotuak patukeria, aztikeria eta irelukeria asko. Hauen muin, erro eta oinharria, ordea, gizakiari eta ikusbirari gainditzen eta eragiten dien eta oinharritzen dituen izakiaz gogaiera eta sineste bat: Jainkoazkoa, alegia.

Gizakia askotariko norbait delarik, ez da bidezko uste izatea haren ikusbide bat bakarra dela giza egintzen eta kondairaren ardatza: inoiz gogaiera eta ohikunde bat nagusitzen dira; ondoren, beste bat, eta gai honetan aldakuntza ari da beti. Hauetan ordea gizakia beste gauzen artean larmentzen duten bereguneak: gizabidea eta bere oinharriaren gogaiera.

HIZTEGIA

Adarbakar: errinozeroa.
adreri: ahalderia, ahaldeen el-kartea.

aihotz: ebakitzeko tresna zorrotz eta zabal bat, gaurko harategi edo arrandegietan okela edo arraina kolpeka zatitzeko erabiltzen denaren gisakoa.

albizitu: indartu, birpiztu.

aldi: garaia baino denbora zati laburragoa; epoka.

antze-jakintza: teknikarako trebetasuna.

apatz: zurezko ontzi bat.

arbel: harri beltz mota bat, kapa edo maila zapaletan ateratzen dena, teila gisa, Zuberotan batez ere, oso erabilia.

arrangifer: errenoa; orein gisako animalia bat, gaur La-

ponian eta lurburuen inguruan bizi dena.

arrankazi: harpoi; arrainak harrapatzeko tresna zorrotz haginduna.

arrauka: karea

azkazi: leinu, kasta.

aztamakila: lantza.

aztarna: ikus **aztarren**.

aztarnategi: aintzinako garaietako tresnen eta bizidunen hondakinak topa daitezkeeneko lekua

aztarren: seinale, arrasto, lehengo gauzen hondakin edo zatiak

Baldoki: gizonaren bekokiaren aurreko bi hegialak, Bizkaian buruko **giltzak** deitzen direnak.

barekide: bare izeneko molusko ezagunaren gisakoa.

- betizu:** basabehi, abelgorri.
bilbe: oihal edo ehun bat egiteko luzetara jartzen den harizko sarea.
burdinori: brontzea.
Eden: pozoia, biziari kalte (batzuetan heriotza) ekar diezakeon gaia edo edaria.
egurats: atmosfera.
ehiza: ihiziak, basoko animaliak harrapatzeko artea.
elikatu: janariak hartu eta horiekin biz.
ende: kasta, arraza.
errekin: erretzeko gai egokia.
erreten: kanale, urbide.
eskaratz: ataria (ez **sukaldea**).
Furrunfarra: «Churinga», ohol-txo luxe bat buru batean zuloduna (sokarentzat). Bira-
 raka zarta aundià egiten du.
Galale: gari ale (**galburu** edo **galeper** bezala).
garai: denbora luzea; hemen espainolezko **era**-tzat erabilia.
garranga: Errengan ortzak dituen tresna (zerra, igitaia, arrankazia).
gizabide: hemen giza bizimodu edo biziprograma bezala erabili da.
gizaki: giza izakia.
gorpu: gorputz hila, hilotza.
gupi: mokor, irteera biribil.
Hagin: 1) hortz, ahoko zati gogorra, 2) landare pozoi-tsu bat.
haro: sasoi luzetxo bat, erdarazko **edad** edo **periodo** bezalakoa.
hargarri: hare harria.
harlaban: labarri, harri labandua.
harlandu: harri landua.
harleun: leunduriko harria; Neolitos haroko harritzko haizkorak.
harmoko: harritzko mokoa.
harpe: haitzulo, koba, aintzina-
 nako gizonen aterpe naturalak.
harrespil: mairubaratze, **kromlec'h**.
harrikadi: hibaien ertzetako harritegi haundiak.
harrilore: mineralen kristal naturalak.
hazkiro: landareak edo animaliak hazteko giroa.
hazkurri: jana, bizitzeko gaiak.
hesoin: etxe bat egiten has-
 teko lurrean jartzen diren lehen hastapenak, lau al-
 deetako hormen oinharriak.
hesoindu: oinharritu.
heziera: hemen maiz **kultura**-
 tzat erabilia.
hildaskatu: hildoz edo marraz markatua.
hilobi: hila ehorzten den to-
 kia edo zuloa.
Igeki: metalezko edo harritz-
 ko orria; igitaia edo la-
 bainena, esate batez.
ihizi: jateko on diren mendi-
 ko basanimalietarik edo-

- zein: eperrak, usoak, erbiak, basurdeak, oreinak...
- ikusbira:** 'kus ahaleko guztia, panorama.
- ilari:** artilea; ardien ilea, jantziak egiteko egokia.
- izkilu:** harma.
- izpelki:** itsas bazterrean, haitzei lotuta bizi diren arraintxo, krustazeo eta moluskoak: lapak, xirlak, karra-marroak. etab.
- Jakiunde:** jakintza, jakituria.
- joalekide:** kanpai edo ezkila itxurakoa.
- Karraskailu:** malera, hezurrei edo larruei eratxekirik gelditzen zaien haragia igortziz kentzeko tresna, aintzinako gizonek erabilia.
- katakorotz:** orratz galgaitzak; erdarazko **imperdible** esateko hitz kuriooa.
- koska:** harriei, lantzeko asmoz, kolpez ateratako zatiak uzten dien utsunea.
- kide:** -oide edo -antzeko zentzuan erabilia.
- kromlec'h:** harrespil, mairu-baratze. Hitz hau bretolen hizkuntzatikoa da (**kromlec'h**) eta azken kontsonantea espainolezko **j** bezala irakurri behar da.
- Labarri:** harpeetako harri edo horma labanak, maiz irudiak ezarriak daudenekoak.
- lanabes:** tresna.
- larmen:** ezberdintasuna.
- larreki:** belar eta landareak.
- leibar:** ibar harana.
- ler:** pinua; zabaleraz konifera guztiak.
- lubai:** luebaki, lurrari luzetara egindako ebakia.
- ludi:** Lurra, gure planeta.
- luondo:** troka, zuloa, leizea.
- lurbira:** mundua.
- lurruspe:** zuloa.
- Malera:** karraskailu, igortziz azalak garbitzeko tresna.
- malkartsu:** latz, gora beheratsu.
- malkartu:** lastu, kolpeka traketts moldatu.
- marraizko:** marruska, gauza gogorrek leuntzeko tresna zorrotza.
- marruska:** harotzek zura leuntzeko erabiltzen duten aihotza; aintzinako gizonek harria eta hezurra lantzeko zerabilaten suharrizko tresna.
- maskor:** moluskoen azal gogorra; xirlak
- mendi saldo:** mendi lerro, mendi katea.
- menasta:** metala.
- muger:** harri mugerra, suharrria, silex.
- mugeriore:** kuartozko kristalak.
- muskulu:** itsas haitzei lotuta bizi den lamelibrankiar xirla beltzeko bat, jateko biziki estimatua.
- Nabar:** lurra ebakitzeko tresna; baita goldearen burdinaren aurrean jartzen den

- aihotz zorrotz bat, * lurra errazago urratzeko.
- Ohikunde:** ohitura, ohikuntza.
- ordeka:** ibar sakon, sinklinal.
- oroi:** etxe baten eskema, plano.
- Pikaziri:** zuloak egiteko ziria.
- Sakan:** sinklinal haundia, ibar nagusi bat.
- sastakai:** zuloak egiteko tresnatxoa; baita izkillu mutur-zorrotza ere (puñala).
- soin:** gorputza, Ataunen orain urte batzuk erabiltzen zen zentzuan.
- sorgin guraize:** Zuberoako maskaradetako xerreroak eramaten duen moduko pintza luzagarria.
- suharri:** sukarri, siliziozko harri gogor bat, metalen kontra joaz xinpartak ateratzen dituen.
- Tastain:** tresna zorrotz ttiki bat, zuloak egiteko erabilia.
- tintil:** zintzilik eramaten diren apaingailuak: belarritakoak, zildaiak...
- tintol haizkorak:** tintol itxurako haizkorak. **Tintola** aho sapaia
- sapaia
- atze
- parte
- an
- dindilizka dugun mami zatitxoa da.
- tutur:** kokotseko alderdi irtena.
- txali:** zurezko plater bat.
- Urraida:** kobrea (**urre-ahaide**, koloreagatik).
- Xirrikatxo:** eraztun, katea bateko maila.
- xubil:** landare pozoitsu bat (?).
- Zanpagai:** zapaltzeko tresna.
- zerrepel:** hotz epel arteko giroa.
- zerrepelte:** zerrepelaldi luzea.
- zildai:** lepotik zintzilik eramaten den apaingarria; baita lok arri baten maila ere.
- zizku:** kantoi, angulua.
- zokon:** sakontasuna duena.
- zoru:** behea, azpia.
- zubil:** haria, soka, kordela.
- zulakaitz:** harria lantzeko burdinazko (?) tresna, mailu batekin edo eskuz joaz erabiltzen dena.
- zuin:** baratze edo soro batean iladak markatzeko jartzen diren ziri edo ezagugarri agiriak.